

**BILBOKO PORTUKO AGINTARITZA**  
**korporazioaren jokaera-kodea**

## AURKIBIDEA

<b>1. XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA.....</b>	<b>2</b>
<b>2. APLIKAZIO-EREMUA.....</b>	<b>3</b>
<b>3. BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PRINTZPIOAK ETA BALIOAK</b> .....	<b>4</b>
<b>4. JOKAERA DESIRAGARRIAK ETA JOKAERA ONARTEZINAK .....</b>	<b>7</b>
4.1. JOKAERA DESIRAGARRIAK .....	7
4.2. JOKAERA ONARTEZINAK.....	8
<b>5. JOKAERA-JARRAIBIDEAK .....</b>	<b>14</b>
5.1. IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIAK ETA POLITIKA .....	14
5.2. EROSKERIAREN ETA USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA .....	15
5.3. PUBLIZITATEAREN ETA BABESLETZAREN POLITIKA .....	19
5.4. OPARIEN ETA ARRETEEN POLITIKA .....	24
5.5. HARREMANAK HORNITZAILEEKIN ETA KONTRATISTEKIN .....	31
5.6. SENIDEAK ETA LAGUNAK.....	31
5.7. JARDUERA OSAGARRIAK.....	31
5.8. AKTIBOAK ERABILTZEA ETA BABESTEIA .....	32
5.9. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA .....	33
5.10. INFORMAZIOA KUDEATZEA.....	34
5.11. IRUDIA ETA IZEN ONA .....	34
5.12. KORPORAZIOAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA, TELEFONOA, INTERNET ETA TEKNOLOGIA BERRIAK ZUZEN ERABILTZEA.....	35
<b>6. JOKAERA-KODEA BETETZEA.....</b>	<b>39</b>
6.1. JOKAERA KODEAREN BATZORDEA .....	39
6.2. ETIKA-KANALA.....	39
<b>7. JOKAERA-KODEA ONESTEA, ALDATZEA, INDARRALDIA ETA ZABALTZEA.....</b>	<b>41</b>
<b>ERANSKINA- JOKAERA-KODEARI BURUZKO ARAUDIA.....</b>	<b>43</b>

## 1. XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Bilboko Portuko Agintaritzaren (aurrerantzean, BPA) izaera juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dituen erakunde publikoa da. Bere funtzioak betetzen dituen erakunde gardena eta osoa izan nahi du eta erantzukizunez jardunez aktiboki lagundu nahi du inguruko gizarte-, ekonomia-, eta ingurumen-hobekuntzan.

Konpromiso horien ondorioz, eta izen ona kudeatu eta defendatzeko borondatez egiten den etengabeko hobekuntza-prozesuaren esparruan, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak 2016ko urriaren 13an egin zuen bileran onetsi zuen BPAREN jokoera-kodea. Agiri horretan zenbait printzipio daude jasota eta erakundeak — borondatez eta alde bakarrez— konpromisoa hartzen du printzipio horiek betetzeko funtzioak gauzatzen dituenean. Hala, jokoera etikoko balio batzuk eta desiragarriak diren jokoera-jarraibide orokorrak beteko ditu; aurreko horiek zentzuzkoak diren arren, gida etikoa dira gobernu- eta kudeaketa-organoetarako, zuzendaritzarako eta portu-erakundeko lantalde guztirako. Hala, teknikari, antolamenduari eta gainbegiraketari lotutako neurri zehatzak jasotzen ditu agiriak.

Geroago, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzeko irailaren 29ko Ogasun Ministerioaren HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoa betetze aldera, Bilboko Portuko Agintaritzak Iruzurren aurkako neurrien plana onetsi zuen. Plan hori Europar Batasunean, Espainian eta eskualdean ezarritako iruzurren aurkako baldintzak errazago betetzeko sortu zen Espainiako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotutako funtsak kudeatzeko esparruan eta jokoera-kodea BPAREN iruzurren aurkako neurrien planaren barnean sartu zen.

Bere aldetik, Interes orokorreko portu-sistemaren egungo esparru estrategikoa urriaren 7ko TMA/1014/2022 Aginduaren bitartez onetsi zen eta 2022ko urriaren 26ko 257. BOEn argitaratu zen.. Esparru horretan zehazten da etika pertsona fisikoetara eta juridikoetara dagokiela. Horrenbestez, portu-agintaritzek aintzat hartu behar dute erakunde publikoak diren heinean eta horregatik ezarri da jarduketa horri lotutako lerro estrategikoa bat "Korporazioaren kultura etikoaren" barnean. Beraz, lerro estrategikoa horren barnean planteatzen da Etika eta Jokoera Kode bat onestea. Bertan sartuko dira, besteak beste, giza eskubideak zaintzea, pertsonak errespetatzea, kontratazioei, obrei edo zerbitzuei lotutako jokoera ez diskriminatzaileak, baliabideen kudeaketa, ustelkeriaren aurkako praktikak, enpresarekiko leialtasuna, integritatea eta konfidentzialtasuna eta erantzukizuna, bai administrazioarekin, bai eta hirugarrenekin ere. Beste alde batetik, portu-erakunde guztietan aplikatzen dela gainbegiratu du batzorde espezifiko batek (Etika Batzordeak) eta plataforma digital bat gaitu beharko litzateke horretarako.

Gainera, Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen dutenak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legea indarrean jarri

zenetik BPAk 2023ko irailaren 20an informaziorako barne-sistemaren (gaztelaniaz, SII) eta etika-kanalaren politikak eta barne-kanalak onetsi zituen. Horien bitartez, BPAko langileek eta beste batzuek arau horretako 2. artikuluan xedatuta dauden arau-haustek salatu ahal dituzte modu seguru eta konfidentzian. Horrela, informatzaileak babestuta egoten dira errepresalien aurrean eta bermatzen da arau-haustek zuzen komunikatzen eta kudeatzen direla.

Gauzak horrela, orain aukera dugu indarrean dagoen jokaera-kodea berrikusi eta eguneratzeko. Helburua BPAk legea eta etika-printzipioak betetzeko konpromisoa indartzea da.

Eguneraketa hau etengabeko hobekuntzaren filosofiaren barnean sartzen da. Asmoa gure ingurura eta harremanetan gauden pertsonetara, enpresetara eta erakundeetara egokitzea da eta asmoa argia da: integritatean eta etikan oinarritutako enpresa-kultura eraiki nahi da.

Berrikuspen honen bitartez Portuko Agintaritzak integritate-sistema sinplifikatu eta indartu du eta komunikazio etikorako eredu bakarra, argia eta gardena finkatu du. Gainera, etikari lotuta bete beharreko estandar altuenen lege- eta gizarte-exijentziekin lerrotuta dago eta kudeaketako eta hobekuntzako SR10 nazioarteko estandarraren baldintzetara egokitu da. Azken horrek jasotzen ditu gizarte-erantzukizuneko nazioarteko praktika eta gomendio onenak, adibidez, ISO 26000n ezarritakoak.

## 2. APLIKAZIO-EREMUA

Jokaera-kode hau aplikatu egin behar da eta Portuko Agintaritzako gobernu- eta kudeaketa-organoei eta langile guztiei dago zuzenduta, hierarkian duten tokia edo kontratu-mota gorabehera. Beraz, hitzarmenaren barnean eta kanpo dauden langileei eragingo die, aldi baterako kontratua zein txanda-kontratua dutenei, bekadunei, praktiketan edo prestakuntza-aldian daudenei, eta abarri.

Aurrerantzean, "Portuko Agintaritzako profesionalei" buruz ari garenean, jakintzat emango da Portuko Agintaritzaren langile multzo horrek lehendakaritza eta zuzendaritza-taldea ere kontuan hartuko dituela.

Hitzarmenetik kanpo dauden eta besteen lana ikuskatzen duten langileek, eta oso bereziki Portuko Agintaritzako zuzendaritzako kideek, ereduaren bitartez arauak betetzen direla sustatu beharko dute eta konfidentziasuna eta etika profesionala bultzatu beharko dituzte, eta beraien portaera integritate-eredua izango da. Era berean, ziurtatu beharko dute gainbegiratzen dituzten gainerako langileek arauak eta etika profesionalak betetzen dituztela eta jokaera-kode honetan ezarritakoa sistematikoki betearazten dutela.

Enpresako organigraman duen maila edo postua edozein izanda ere, inork ezin izango dio beste langile bati eskatu kode honetan zehazten dena urratzeko. Era berean, ezingo da jokaera onartezin bat justifikatu goitik etorri den agindua dela esanez, edo kodearen berri ez duela adieraziz.

Kode honetan eta aplikagarria den legerian zehazten diren balio, arau eta jarraibideen artean gatazka sortzen baldin bada, legeak ezartzen duena gailenduko da kode honetan xedatzen denaren gainetik.

Kode honetako jokaera-jarraibideak interpretatzean zalantzak sortzen direnean, langileek nagusiarengana eta BPAren bitartekoetara jo ahalko dute.

Beste alde batetik, BPAk hornitzaileen, kontratisten, erabiltzaileen, bezeroen, enpresa kolaboratzaileen eta gainerako interes-taldeen artean sustatu eta bultzatuko du etika-kode honetan definitutakoekin koherenteak diren jokaera-jarraibideak ezartzen direla.

### 3. BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PRINTZIOAK ETA BALIOAK

Etika-eta jokaera-kode honetan jasota dago Bilboko Portuko Agintaritzaren langile guztien jarduna arautu behar duten jokaera-arauen katalogoa, eta tresna gisa interpretatu beharra dago. Tresna horrek araudi-politikak txertatzea ahalbidetzen du, baita ere BPAREN kudeaketa-prozedurak agirian jasotako balioekin, printzipioekin eta arauekin lerrokatzea.

Kode honen abiapuntua langile publiko guztien jardunaren obligazioak eta printzipio etikoak eta jokabidekoak dira. Horretarako, lehen oinarria Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikuluan xedatutakoa da; administrazio publikoari exijitzen zaio objektibotasunez betetzea interes orokorrak, efikazia-printzipioarekin bat etorritz jardutea eta legea eta zuzenbidea guztiz betetzea.

Gainera, honako hauean xedatutako arauak eta printzipioak aintzat hartu beharko dira:

- Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina (aurrerantzean, LPOELTB), urriaren 30eko 5/2015 Legegintza Errege Dekretuaren bidez onetsi zena, eta bereziki 52. artikulutik 54.era jasotako printzipio etikoak eta jokabidekoak.
- Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea (aurrerantzean, SPKL), zeinaren bidez Espainiako antolamendu juridikora ekartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak; bereziki, 1., 63., eta 64. artikuluetan xedatutakoa. Artikulu horien bitartez arautzen dira publizitate- eta gardentasun-arauak kontratazio publikoan eta ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa.
- Estatuko administrazio orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legea eta administrazio publikoko langileen bateraezintasunei buruzko legeria.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- Informatzaileen babesa eta iruzurraren aurkako borroka arautzen dituen otsailaren 20ko 2/2023 Legea.

Era berean, kode honek kontuan hartzen ditu Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak (aurrerantzean, ELGA) integritate publikoari buruz zabaldu dituzten gomendioak eta praktika onenak, baita ere Gobernu irekierako aliantza (*Open Government Partnership, OGP*) oinarritzen duten printzipioak.

Araudi- eta lege-betekizunetatik haratago, kode hau langileen jokabidea gidatuko duen etika-balioen multzoa da. Horri esker, langile guztiek portaera onartua, partekatua eta guztiengandik errespetatua izango dute. Modu horretan, eta erakunde gisa identifikatzen gaituzten balioak kontuan hartuta, kodeak argi uzten du zein diren jokaera desiragarriak eta zeintzuk diren onartezinak. Aurreko guztiarengatik, kodea aplikatzen zaien langile guztiek berau ezagutu eta betetzeko obligazioa dute. Horretaz gain, kodea Portuko Agintaritzan ezartzea errazten lagundu behar dute eta horren barnean egongo da, besteak beste, arau-haustek Zaintza Organoari (zehazki, Jokaera Kodearen Batzordeari) komunikatzea.

BPA eratzen dutenek osotasunez jokatu behar dute, hau da, legeak betez eta kultura etikoa sustatuz. Horregatik, Administrazio Kontseiluak eta zuzendaritza-taldeak, Portuko Agintaritzako gainontzeko langile guztiekin batera, honako printzipio etikoekin bat etorri jarduteko konpromisoa hartzen dugu, LPOELTBren 52. artikuluan jasotako baldintzetan:

- Lanari dagokionez zintzotasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna eta jarrera arduratsua izatea.
- Pertsonetikiko konpromisoa eta konfiantza.
- Koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko gogoia.
- Eraginkortasuna zereginak betetzean.
- Inpartzialtasuna, gardentasuna eta soiltasuna.
- Bezeroari bideratutako orientazioa eta proaktibitatea.
- Gure inguruaren ekonomia-, ingurumen-, eta gizarte-jasangarritasuna.
- Kalitate eta berrikuntzarekiko konpromisoa.

BPAko langile guztiek (gobernu- eta kudeaketa-organoetako kideak eta zuzendaritza-taldeak barne) jasangarritasun-printzipioak, gizarte-erantzukizuna eta giza eskubideekiko errespetua betez jarduteko konpromisoa hartzen dute. Horrek esan nahi du portu-kudeaketan ingurumeneko, gizarteko eta gobernu oneko (ESG, gaztelaniaz) irizpideak integratu behar direla, interes-taldeekin (bezeroak, hornitzaileak, erabiltzaileak, portu-komunitatea, erakundeak, etab.) elkarrizketa irekia mantendu behar dela eta aukera-berdintasuna, aniztasuna eta ingurumenaren babesa sustatu behar direla.

Balio horietatik abiatuz nor garen, gure zeregina zein den eta barne- zein kanpo-harremanetan erakundearentzat garrantzitsua dena zer den erakusten dugu.

Gure misioa Bilboko Portuak Iberiar penintsularen iparraldeko adabegi intermodal logistiko nagusi gisa duen eginkizuna mantendu eta sendotzea da, *hinterland* logistikoa lurralde-eremu horietara guztietara hedatuz.

Horretarako, Bilboko Portuaren garapena bezeroen beharrak asetzeko zerbitzuen eskaintza integral gisa sustatu nahi dugu, eta portuak eragiten duen tokietan jarduera ekonomikoa bultzatu nahi dugu berrikuntza eta iraunkortasuna kontuan hartzen dituen testuinguruan.

Helburu horrekin, jokaera-kode hau gida bat izan behar da Portuko Agintaritzako langileen arteko harremanak bideratzeko, baita langileek bezeroekin, hornitzaileekin, erabiltzaileekin, administrazio publikoekin, kolaboratzaileekin eta portu-komunitatearekin (aurrerantzean, "interes taldeak") dituzten harremanak gidatzeko ere.

Kode honetako jokaera-irizpideen barnean ez dira jaso arlo subjektiboan bizi daitezkeen egoera edo inguruabar guztiak. Hala, asmoa jokaera profesionaleko jarraibide orokor batzuk ezartzea da, baita ere erreferentzia-gida izatea gizarte- eta enpresa-arloko kontuetan, eta langileei orientabideak ematea lanean ari direla jarduteko moduaren inguruan. Horretarako, dilema etikoak sor ditzaketen kontuetarako prozedura espezifikokoak jaso dira eta horien barnean jokaera-estandar bat ezarri da; azken horrek normalizatu egiten du interpretazio edo zalantza posiblei lotutako jardueren garapena.

Gainera, kodeak jokaera desegokiak prebenitu eta detektatzeko beharrezkoa den diligenzia-printzipioa ezartzen du. Modu horretan, tresna sistematikoa da erakundearen estandar morala etengabe hobetzeko eta horrelako jokabideak jakinarazi eta zuzentzeko bide egokiak zehazteko.

Aurrekoaz gain, kode hau estuki lotzen da BPAREN iruzurren aurkako neurrien planean jasotako arau eta printzipioekin.

## 4. JOKAERA DESIRAGARRIAK ETA JOKAERA ONARTEZINAK

Portuko Agintaritzako langileek modu fidagarrian, errespetuzkoan eta etikoan lan egiten dute eta lankideekiko, lan-eskatzailleekiko, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta Portuko Komunitatea osatzen duten enpresen osotasunarekiko behar den arretaz eta arduraz jokatzeko dute.

Aurreko guztia abiapuntutzat hartuta eta BPAREN balio etikoei erreparatuz, jokaera desiragarriak eta onartezinak definitu dira.

### 4.1. JOKAERA DESIRAGARRIAK.

- **Jokaera zuzena, zintzoa eta arduratsua:** Ematen den hitza bete behar da, erakundearen interesak norberaren interesen gainetik jarriz. Modu horretan bakarrik lortuko dugu portu bezala dugun potentzialtasuna handitzea eta Portuko Komunitatearen osotasunari dagokionez, erakunde seguru eta fidagarria izango gara.
- **Langileen, sailen eta enpresen arteko kooperazioa:** Gure zeregina Bilboko Portuan lan egiten duten edo etorkizunean lan egin dezaketen enpresei, portu-komunitate osoari eta BPAREN interes-taldeei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea da, gure inguru hurbilenerako aberastasuna eta jarduera ekonomikoa sortu dezaten.

Horretarako, beharrezkoa da kooperazio-jokaera izatea eta gure profesionalen eta sailen artean eta horiek aipatutako enpresekin batera irtenbideak bilatzea, guztion artean osatzen baitugu azken bezeroentzako zerbitzu-katea.

- **Aniztasuna errespetatzea eta jarrera inklusiboa izatea:** Aniztasuna aberasten gaituen faktore bezala onartu eta errespetatu behar da. Modu horretan langileak seguru, konprometituta eta gure erakundearen parte sentituko dira, soilik bakartzeari mesede egiten dieten aurreiritziei beldurrik izan gabe. Ildo horretatik, Portuko Agintaritzak garen heinean, genero, arraza, erlijio, sexu-orientazio, aniztasun funtzional, ideologia, adin, itxura fisiko edo beste edozein egoera pertsonal, fisiko edo sozialek sor ditzaketen baztertzekizunak edo diskriminazio ororen aurka gaude.

Portuko Agintaritzak Berdintasun Batzordea du.

- **Efizientzia:** Portuko Agintaritzako langileek modu eraginkorrean lan egiten dute, denbora eta erakundeak eskuragarri jartzen dituen baliabideak errentagarri bihurtuz eta parte hartzen duten prozesu orori ahalik eta baliorik handiena ematen saiatuz.

- **Ohitura osasuntsuak:** Norbere eta ingurukoen laneko osasuna bultzatuz, lan-giroa hobetuz eta norbere garapena sustatuz. Portuko Agintaritzak Portu Osasuntsua deituriko programa du eta, horrez gain, gure langileen artean egiten diren askotariko ekintzak sustatzen ditu.
- **Erakundearen irudi positiboa sortzea eta helaraztea:** Hobetzeko alderdiak ditugula jakitun, badakigu zein garrantzitsua den portu bezala erakargarriak egiten gaituzten indar-gune, potentzialtasun eta alderdiak hirugarrenei komunikatu eta helaraztea.
- **Hizkuntza ofizialak: Euskara normalizatzea.** BPAko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direnez, erakundearen jardura guztietan normaltasunez erabiliko dira. Aldi berean, BPAk langileen artean eta bazkideekin, enprekin eta erakundeekin dituen harremanetan euskara erabiltzea sustatuko du, elebitasuna bermatuz eta BPAk hizkuntza-normalizazioa bultzatuz. Horretarako, euskara-plana aplikatuko da.

## 4.2. JOKAERA ONARTEZINAK

### 4.2.1 Jazarpen sexuala, jazarpen sexista eta sexu-identitatean eta genero-identitatean edo -adierazpenean oinarritutako jazarpena

Bilboko Portuko Agintaritzak berariaz ukatzen ditu lantokian edozein motatako jazarpen sexualak, jazarpen sexistak eta/edo sexu-identitatean edo genero-adierazpenean oinarritutakoak. BPAko langile guztiek —lanpostua edo hierarkia-maila gorabehera— errespetuz jardun behar dute eta laneko giroa duina eta jazarpenik eta diskriminaziorik gabea izaten lagundu behar dute.

Jokaera-kode honen ondorioetarako:

- **Jazarpen sexuala da:** hitzezko edo ez hitzezko jokabideak edo jokaera fisikoak, sexualak direnak eta jasotzen dituenak ez dituenak ez eskatu, ezta nahi ere. Asmoa beste pertsona baten osotasun fisikoaren edo psikologikoaren aurka egitea izaten dute edo asmo hori izan gabe ere, efektu hori sortzen dute.

Jazarpen sexuala izan daitezkeen jokaera batzuk hauek dira:

- Iraingarriak edo gaitzesgarriak diren aipamenak, txantxak, intsinuazioak edo keinu sexualak.
- Esplizituki sexuala den materiala erakustea lantokian edo korporazioaren bitartekoetan.
- Baimenik gabeko kontaktu fisikoak edo hurbilpen desegokiak sexu-konnotazioarekin.
- Proposamenak, mesede sexualak eskatzea edo xantaia sexualak egitea.
- Sexua edo generoa oinarri hartuta tratu iraingarria, larderiazkoa edo

desegokia izatea eta emakume edo gizon izatearren horien aurkako giroa sortzea.

- **Sexuan oinarritutako jazarpena (edo jazarpen sexista):** sexuan edo generoan oinarrituta diskriminatzailea den edonolako jazarpen-mota da. Jazarpen horren efektua inguru intimidatzailea edo umiliagarria sortzea da.

Jazarpen sexistaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren adibide batzuk hauek dira:

- Fisikoki edo hitzez norbait erasotzea sexu batek bestearen gainean duen nagusitasuna erakusteko.
- Lanean norbaiten edo talde baten (sexu jakin batekoak izateagatik) gaitasunak, trebetasunak eta ahalmen intelektualak barregarri uztea, adierazpen peioratiboak erabiltzea edo gutxiestea.
- Aurreiritzi sexistak oinarri hartuta norbaiti lanak esleitzea edo horiek egiteko eskatzea.

- **Sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena:** pertsona baten aurkako ekintzak bere sexu-orientazioan oinarrituta. Ekintza horiek iraingarriak, umiliagarriak, bortitzak eta larderiazkoak izan daitezke eta asmoa edo efektua haren duintasunaren aurka egitea eta giro intimidatzailea edo degradatzailea sortzea da.

Sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena izan litezkeen jokaeren adibide batzuk hauek dira:

- Norbaiten sexu-orientazioarengatik egin duen lana gutxiestea.
- Norbait ezberdin tratatzea bere sexualitatean edo sexualitatearekiko hautematean oinarrituta.
- Norbait barregarri uztea bere sexu-orientazioarekin lotuta.
- "Umorea" erabiltzea edo komentario lesbofoboak, homofoboak edo bifoboak (besteak beste) egitea lanean.

- **Genero-adierazpenean edo -identitatean oinarritutako jazarpena:** jarrerak edo jokabideak dira eta genero-adierazpeneko edo -identitateko arrazoiak direla-eta norbaiten duintasunaren aurka egiteko asmoarekin edo efektuarekin egiten dira eta giro intimidatzailea edo degradatzailea sortzen dute.

Genero-adierazpenean edo -identitatean oinarritutako jazarpena izan litezkeen jokaeren adibide batzuk hauek dira:

- Pertsona transexual bati ez deitzea berak nahi duen izenarekin edo nahita erabiltzea bera identifikatzen den generoarekin bat ez datozen artikulua edo izenordainak.
- Pertsona baten gaitasunak, trebetasunak eta adimen-potentziala gutxiestea

bere genero-adierazpenarekin edo -identitatearekin lotuta edo berak egindako ekarpenak, komentarioak edo ekintzak arrazoi berarengatik alboratzea edo kontuan ez hartzea.

- “Umorea” erabiltzea edo komentario transfoboak edo interfoboak egitea lanean.

Aipatutako jazarpenetako bat egitea arau-hauste oso larria izango da, indarreko Estatuko Portuen eta Portu Agintaritzen III. Hitzarmen Kolektiboan adierazita dagoen bezala. Horrenbestez, pertsonen aurkako duintasunaren kontrakoak diren edo laneko inguru desatsegina sortzen duten jokabideak izanez gero, dagozkion diziplina-neurriak ezarriko dira, kode hau eta aplikatzekoa den lege-araudia betez.

#### - **Jazarpen-egoerak gertatzen direnean jarduteko mekanismoak**

BPAk bere langileentzat eskuragarri jarri ditu zenbait baliabide jazarpen-egoerak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko. Modu horretan, jazarpenaren biktimek edo testiguen nagusiari, Giza Baliabideen Sailari, Berdintasun Batzordeari edo Jokaera Kodearen Batzordeari jakinarazi ahal izango dizkiete, aurrekoak laguntzeko eta bideratzeko figurak baitira.

Enpresak nahitaez ireki beharko du ikerketa bat gatazkak konpontzeko protokoloarekin bat etorritik. Horren barnean daude lan- eta sexu-jazarpeneko egoera posibleak eta bestelakoak edo pertsonen arteko gatazkak.

Prozesuan zehar eraginpekoen pribatutasuna eta intimitatea babestuko dira eta debekatuta daude fede onez informatzen dutenen aurkako errepresaliak.

#### - **Erakunde-konpromisoa**

Lehendakaritzak, Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Batzordeak erabateko konpromisoa hartu dute zero tolerantzia izateko jazarpen sexuala, jazarpen sexista, sexu-identitatearengatik jazarpena eta genero-identitatean edo -adierazpenean oinarritutako jazarpena eratzten duten jokaera guztiekiko.

Konpromiso horrek esan nahi du baliabideak erabiliko dituztela horrelako jokabideak agertzea ekiditeko eta berdintasunezko eta errespetuzko kultura sustatzeko.

Horrekin lotuta, BPAk, Berdintasun Batzordearen eta bestelako bideen bidez, langile guztiei zuzendutako aldizkako prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak bultzatuko ditu. Asmoa izango da informatzea zein jokaera diren onargarriak, nola identifikatu jazarpen-egoerak eta nola jokatu horrelakoak gertatzen direnean.

Era berean, laneko giroa aktiboki zaintzeko neurriak bultzatuko dira, eta horiei esker azkar detektatu ahal izango dira jazarpen- edo diskriminazio-zantzuak.

Portuko Agintaritzak berresten du langileen garapenerako ezinbestekoa dela lantokia segurua, inklusiboa eta errespetuzkoa izatea. Horrenbestez, eskuragarri dituen baliabide guztiak erabiliko ditu lantokian edozein motatako jazarpenik gertatu ez dadin.

Laburbilduz, Bilboko Portuko Agintaritzak irmotasunez defendatuko ditu printzipio eta balio horiek sexu-jazarpenak eta generoarengatiko jazarpenak prebenitzeko. Hala, laneko inguru osasuntsua bermatuko du, non pertsona guztiak errespetuz tratatuak diren eta baldintza-berdintasunean lan egin dezaket.

#### 4.2.2. Erasoak eta indarkeria, *mobbinga* eta lan-presioa

BPAren ustez lan-giroa segurua eta osasuntsua izatea ezinbestekoa da langileek beren potentziala maximizatu ahal izateko. Horrenbestez, ukatu egiten ditu edonolako eraso edo jokaera oldarkorrak edo intimidatzaileak, hala nola hauek: fisikoak (kolpeak, bultza egitea...), hitzezkoak (irainak, isekak...), psikologikoak (manipulazioak, mehatxuak...), sozialak edo harremanetakoak (bazterketak, zurrumurrak zabaltzea...) , mobbingabarne.

Jokaera-kodearen atal hau urratzea arau-hauste oso larria izango da. Arau-haustek gertatzean diziplina-zehapenak ezarri ahalko dira une bakoitzean indarrean egongo den barne-araubidearekin, Estatuko Portuen eta Portu Agintaritzen Hitzarmen Kolektiboarekin eta aplikatzekoa den lan-araudiarekin bat etorriz, albo batera utzi gabe bestelako lege- edo zigor-erantzukizun posibleak.

- **Erasoak eta indarkeria:** mentalki edo fisikoki norbait jazartzen, mehatxatzen edo erasotzen duten kasuak, zuzenean lanarekin lotutako inguruabarretan. Eraso- eta indarkeria-kasuak hitzezkoak eta hitzez bestekoak diren gehiegikeriei (tratu txarrak, jazarpena, gutxiestea, irainak, etengabeko txantxa burlatiak...) edo indarkeria fisikoei (kolpeak, mehatxuak edo lapurretak...) dagozkie. Indarkeria psikologikoa izan daitezke baita ere: mehatxuak, intimidazioa edo laneko galkarga.

- **“Mobbinga:”** jokaera sistematikoa eta denboran luzatzen dena da. Jazarpen fisikoa (jazarpen edo bakartze soziala...) edo psikologikoa (irainak, etengabeko umiliazioak, larderia, etsaitasuna...) egiten da lanean. Lankide batek edo gehiagok beste baten edo batzuen aurka gauzatzen dute.

Hauek dira mobbing-mota ohikoenak:

- a) Bakartze soziala (norbait bere talde hurbiletik urruntzeko bulegoa edo lan egiteko tokia aldatzea edo atsedendietan, bazkaltzeko orduan edo horrelakoetan norbaiti etengabe jaramonik ez egitea).
- b) Lana zerbait desatseginean edo ezinezkoan bihurtzea (ezinezko lanak egiteko agintzea edo lan horiek egitea oztopatzea, ezertarako behar ez diren edo arriskutsuak edo umiliagarriak diren zereginak ematea, egindakoa gutxiestea edo kritika suntsigarriak egitea).
- c) Norbaiten bizitza pribatuari buruzko komentario negatiboak egitea (besteak beste, bere zaletasunei, erlijio uste sendoei, generoari, sexu-orientazioari, arrazari, desgaitasunari, itxurari edo portaerei buruz zerbait esatea edo keinuak egitea).

- d) Gaizki esaka ibiltzea (besteen inguruan gaizki hitz egitea eta oinarriak ez duten zurrurak zabaltzea).
- e) Errespeturik ez erakustea, iraintzea edo norbait barregarri uztea (lankide bati buruz edo kanpoko norbaiti buruz burla egitea).
- f) *Cybermobbing* edo sare sozialak, foroak, whatsapp edo aplikazio informatikoak (besteak beste, adimen artifiziala) erabiltzea langile bat jazartzeko edo iraintzeko.

Mobbingak jazarpena zuzenean jasaten ari diren langileei zein taldekideei zeharka eragiten die eta inpaktu negatiboa izan dezake lan-giroan edo BPAko langileen aldarrean edo errendimenduan.

#### - **Gehiegizko lan-presioa**

Gehiegizko lan-presioa gertatzen da langileak ezin dituen bere laneko baldintza kuantitatibo eta kualitatiboak bete, osasunarentzat kaltegarriak diren erritmo edo epeetan lan egiten ari delako.

#### **4.2.3. Diskriminazioa**

Diskriminazioa da pertsonak ezberdin tratatuz horien artean bereizketa egitea, oinarri bezala, besteak beste, arraza, jatorria, erlijioa, generoa, norbere uste sendoak, aniztasun funtzionala, sexu-orientazioa edota itxura fisikoa, adina edo bestelako baldintza pertsonal, fisiko edo sozialak hartuz. Horren ondorioz, norbanakoak edo taldeak gutxietsiak izaten dira. Diskriminazioaren ideia nagusia beste pertsonak gutxiago balio duela pentsatzea da, soilik aurreko kolektiboren bateko parte izateagatik.

Portuko Agintaritzak lanbide-jardueran inolako diskriminaziorik ez dagoen eta diskriminazioa baimentzen ez den erakunde bat izan nahi du.

Hala eta guztiz ere, diskriminazio positiboa baimenduta dago hautaketa- eta kontratazio-prozeduretan, lege ezarritako baldintzetan. Beste batzuen artean, hurrengo legeetan edo horiek osatzen eta/edo ordezkatzeko dituztenetan:

- o 6/2022 Lege Organikoa, martxoaren 31koa, Desgaitasuna dutenen lan-inklusiurako;
- o 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, Tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako.
- o 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako;
- o 2/2024 Lege Organikoa, abuztuaren 1ekoa, Emakumeen eta gizonen ordezkartza eta presentzia paritarioari buruzkoa;
- o 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta

eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko.

#### **4.2.4. Alkohola, drogak, tabakoa eta psikofarmakoak kontsumitzea**

Portuko Agintaritzak langileen ongizate fisikoa, mentala eta soziokulturala babesten, sustatzen eta zaintzen duen espazioa izan nahi du. Horregatik, besteak beste, programa eta jarduketa batzuk antolatuko dira alkoholaren, drogen, tabakoaren eta psikofarmakoen menpekotasunak saihesteko, baita horien kontsumoa gutxitu edo desagertzeko ere.

Portuko Agintaritzako langileek alkohola, drogak eta psikofarmakoak kontsumitzearen inguruko arauak bete beharko dituzte. Arau horiek lanpostuen arriskuen ebaluazioaren ondorioz sortu ziren eta orokorrean debekatuta dago substantzia horiek kontsumitzea ibilgailuak gidatzen, makinak erabiltzen eta ontziak gidatzen diren lanpostuetan eta altuerako lanetan eta antzekoetan. Gainerako lanpostuetan ohiko jokaera-arauak beteko dira.

Langileren batek substantzia horiek gehiegikeriaz kontsumitzen dituela ikusten bada eta horrek bere segurtasuna edo hirugarrenena arriskuan jartzen baldin baditu, Portuko Agintaritzak kasu horretan aurrera eraman beharreko jarduketak arautzeko prozedurak ezarriko ditu.

Tabakoari dagokionez, legeria zorrozki beteko da eta urraketak detektatzeko neurriak ezarriko dira.

Psikofarmakoei dagokienez, osasun kontuak direla-eta horiek kontsumitu behar dituzten pertsonak Portuko Agintaritzako Zerbitzu Medikoari horren berri eman beharko diote, eta beren funtzioak betetzeko horien kontsumoak duen bateragarritasuna ebatziko da.

## 5. JOKAERA-JARRAIBIDEAK

Portuko Agintaritzako langileek modu etikoan jokatu behar dute, erakundearen interesak norbere interesen aurretik jarritz. Portuko Agintaritzak konfiantza du bere langileengan, eta ziur dago langileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoek erakundearentzat onena dena bilatzen dutela norberarentzako, lagunentzako edo familiarentzako onurak bilatu beharrean.

Erakundeak espero du langileek behar diren neurriak hartuko dituztela lanbide-jarduera gauzatzean beti estandar etiko altuenekin jokatzeko eta iruzurra eta ustelkeria ekiditeko.

Ondorio horietarako, lan-jardueran nahitaez bete beharko diren jarraibide, politika eta neurri hauek ezartzen dira.

## 5.1. IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIAK ETA BETE BEHARREKO POLITIKA

Iruzurraren aurkako politikaren xedea Bilboko Portuko Agintaritzako zuzendari eta langile orori, baita beraiekin harremana duten beste batzuei ere, honako mezu hau helaraztea da: erabateko desadostasuna adieraziko da eta zero tolerantziaren printzipioa aplikatuko da iruzurrezko, legez kontrako edo antzeko ekintza guztien aurrean. Halaber, politika honek agerian jarri nahi du erakundearen borondatea halako ekintzak eragozteko eta neurriak hartzeko, erakundearen irudia eta ospea hondatu baino lehen. Iruzurraren aurkako politika honen bidez, konpromisoa hartzen da etengabe begiratzeko iruzurrezko ekintzak eta jokabideak gerta ez daitezen eta, gertatuz gero, zehapenak ezartzeko, baita langile guztiak kontzientziatze aldera komunikabide eraginkorrak mantentzeko eta etikan eta zintzotasunean oinarritutako kultura bat garatzeko ere.

Iruzurraren aurkako politika hau ezartzeko, erakundeak, Jokaera Kodearen Batzordearen bitartez, delituei aurrea hartzeko berariazko programa eraginkor bat (balizko delituen aurrean hartu beharreko neurrien multzoa, iruzurrak prebenitzeko, detektatzeko eta horiei erantzuteko) jarri du abian. Programa hori, halaber, iruzurrezko jarduerak eta beste irregulartasun batzuk prebenitzeko eta kontrolatzeko erabiliko da, eta hori guztia, jarraibideak berrikustea eta Espainiako Zigor Kodeak, pertsona juridikoen erantzukizun penala gehitu ondoren, ezarri dituen betebeharrak berrietara egokitzea helburu dituen prozesuaren barruan.

Aipatu politiken bidez helburu batzuk bete nahi dira. Alde batetik, bermatu nahi da, beste batzuen aurrean eta organo judicial eta administratiboen aurrean, erakundeak, delituak prebenitzeko edo horiek egiteko arriskua nabarmen murrizteko neurririk egokienak ezarriz, bere jarduera ikuskatu, zaindu eta kontrolatzeko betebeharrak modu eraginkorrean betetzen dituela, eta, hortaz, erakundearen gobernu-eredua kontuan hartuta, behar den eta legez eska dakioken kontrola du kudeatzaile, zuzendari, langile eta bere menpe dauden beste pertsonen gainean; kontrol horrek barnean hartzen du erakundearen jarduera-esparruan sor daitezkeen delitua egiteko arrisku-egoerak ikuskatzea, delitua pertsona jakin bati egotzi ezin zaionean ere. Bestaldetik, indartu nahi da hartutako konpromisoa iruzurraren aurka egiteko, adiera guztietan.

Aurrekoarekin bat, antolakundean gerta daitezkeen edozein iruzurrezko praktika prebenitu, antzeman, ikertu eta konpontzeko, baita langileak jakinaren gainean jartzeko, kontzientziatzeko eta gaiari buruzko prestakuntza emateko ere, erakundeoko langile orok jarraitu behar dituen printzipioak ezartzen dira.

Iruzurraren aurkako politika hau kontuan izan behar da, korporazioaren jokaera-kodearekin eta erakundearen kultura etikoa sustatzen duten gainerako politikekin batera.

### 5.1.1 Definizioak

**Iruzurra:** Iruzurra besteak engainatzeko nahita egindako ekintza edo ez-egitea da, ondorioz, iruzurraren biktimak galtzen duenean eta/edo iruzurgileak onura lortzen duenean. Lan-ingurunean gerta daitekeen iruzurraren hiru mota nagusiak honako hauek dira: aktiboez bidegabe jabetzea, iruzurrezko adierazpenak eta ustelkeria.

- Funtsez bidegabe jabetzea. Erakundeko langileek beste batzuen aktibo ukigarri eta ukiezinak berenganatzea. Adibide batzuk:
  - o Faktura faltsuak.
  - o Kontratuak ez betetzea.
  - o Ordainbideak faltsutzea.
  - o Kanpoko zibererasoak.
- Iruzurrezko informazio-adierazpenak.
  - o Finantzei buruz iruzurrezko informazioa ematea. Kontabilitateari dagokionez, nahita egindako adierazpen faltsuak egitea finantzei buruz iruzurrezko informazioa ematea da.
  - o Iruzurrezko informazio ez finantzarioa ematea. Finantzekin zerikusirik ez duten arriskuei eta eskemei buruz iruzurrezko informazioa ematea, batez ere, informazio horrek ingurumenari, segurtasunari, kalitate-kontrolari eta jarduteko prozedurei buruzko txostenak faltsutzea ekar dezakeenean.
- Legearen aurkako beste ekintza batzuk eta ustelkeria-ekintzak.
  - o Legearen aurkako ekintza bat hauxe da: legeak edo gobernuaren arauak haustea, kanpoko finantza-txostenetan inpaktu materiala, zuzena edo ez, eragin dezakeena.  
  
Adibide batzuk honako hauek izan daitezke: eroskeria, zirikatzea, estaltzea edo konplizitatea iruzurra egitean, legeak haustean, informazio pertsonala, merkataritzako sekretuak edo segurtasun nazionalarekin loturiko informazioa legez kontra erabiltzean; lan-inguruneari eta teknologiaren esportazioari loturiko legeak edo kontsumitzailea babesteko legeak haustea.

**Ustelkeria:** Ustelkeria zigor-zuzenbidearen arabera egotz daitekeen jokabidea da, eskaintzak, hitzemateak, esku-erakutsiak edo emariak eskatu, onartu edo jasotzean

datza, horien truke zerbait egiteko, ez egiteko edota mesede edo abantaila batzuk lortzeko.

### 5.1.2. Garapena

Erakundeak bete egiten du aplikatzekoa den araudia, Estatuko Portuen eta Merkataritza Ontzidiaren Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera ekonomiari eta finantzei buruzko informazioarekin bat etorriz.

Iruzuraren aurkako politikak bat egiten du erakundearen lehendik dauden barne-politiken multzoarekin. Izan ere, politika horiek interesa erakusten dute indarrean dagoen legedia betetzeko eta estrategiak eta jarduketak indarrean dauden arauarekin eta arlo horren inguruko praktika onenekin bat etorrarazteko.

Hain zuzen ere, erakundeak konpromisoa du iruzurraren aurka borrokatzeko eta horri aurre egiteko neurriak sustatu eta indartzeko ahaleginak egiteko. Hori dela eta, baztertu egiten ditu iruzur mota guztiak, bai kanpotik datozenak bai erakundearen gertatzen direnak.

Erakundeak baditu mekanismo egokiak iruzur-kasuei aurrea hartzeko, horiek antzemateko eta ikertzeko. Bere arlo desberdinetan barne-kontrolerako sistemen eraginkortasuna ebaluatzen du eta kontrol-ereduen eta betetze-mailaren jarraipena egiten du. Erakundearen iruzur-arriskua kudeatzeko eredu honako oinarri hauek hartuta aplikatzen da:

- Prebentzioa: iruzurra eta jokaera desegokiak gertatzeko arriskua murrizteko kontrolak.
- Detektatzea: kontrol-lanak dira iruzurra eta beste jokaera desegoki batzuk gertatzen direnean argitara emateko; horretarako, iruzur-arriskuaren adierazleak landu eta aplikatu behar dira (iruzurra egon daitekeela ohartarazteko mekanismoa).
- Komunikazioa: Langileek, barne-informaziorako sistema deskribatzen duen politikarekin bat etorriz, etika-kanalean (<https://whistleblowersoftware.com/secure/bilbaoport>) informatu ahalko dituzte politika honetan jasotako jokaeren ez-betetzeak edo urraketak edo halakotzat jotzen diren egitateak.
- Ikertzea: Ustez delituak izan daitezkeen egitateak edo egintza iruzurrezkoak edo irregularrak salatzen direnean (zenbatekoa gorabehera) SIIren politikan xedatutako moduan eta epean ikertuko dira. Hau dago ezarrita: ikerketa-jarduketei erantzuteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita, edo informatzaileari hartu-agiria bidali ez bazaio, hiru hilabetekoa, jakinarazi eta

hurrengo zazpi egun naturaleko epea bukatetik aurrera zenbatzen hasita, salbu eta epea luzatzea behar duten konplexutasun handiko kasuak badira. Horrelakoetan, epea luzatu ahal izango da, gehienez ere beste hiru hilabetez.

- **Erantzuna:** kontrol-neurriak abian jartzea, neurri zuzentzaileak hartzeko eta iruzurrak edo legez kontrako jokaera batek eragindako kalteak konpontzeko. Erantzunak SIIren politikan eta iruzurren aurkako neurrien planean xedatutakoa beteko du.

Jarraian zehaztuko dira erakundeko langileek beren eginkizunak betetzeko orduan kontuan hartu behar dituzten jardun-printzipioak eta jardunbideak, iruzurrari aurrea hartzeko eta iruzurrezko ekintzak antzemateko:

- **Iruzurrezko adierazpenak, informazio finantzarioaren zein ez-finantzarioaren gainean.** Erakundearen iritziz, zuzendaritza-organoei eta kanpoko eragileei bidaltzen zaien informazioaren gardentasuna garrantzitsua da. Erakundeak eskaintzen duen informazioa egiazkoa eta osotua da, bezeroengan, hornitzaileengan eta interesa duten gainerako pertsonengan ahalik eta konfiantza handiena sortzeko.

Horretarako behar bezala ahaldunduta dauden pertsonak bakarrik egingo dituzte adierazpenak erakundearen izenean.

Gainera, pertsona horiek erregistro bat eramango dute, jasotako eta igorritako dokumentazioa eta formalizatutako erabakiak gordetzeko.

- **Funtsez bidegabe jabetzea.** Erakundearen aktiboak bezero, hornitzaile, langile eta abarrei ematea eta horiek jasotzea dagokion ahaldunaren onarpenaren menpean egongo da. Halaber, administrazio- eta finantzarloak zein Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Orokorrak kontrolatu eta berrikusi egingo dituzte mugimendu horiek.

Erakundeari, bezeroei, hornitzaileei, langileei eta abarrei buruzko isilpeko informazioa diskrezio osoz eta pribatutasuna babestuz erabiliko da. Informazio hori isil-gordean mantendu beharko da. Erakundeko langileek ez dute informazioa bidegabe erabiliko beren onurarako edo beste inoren onurarako.

- **Ustelkeriaren aurkako politika.** Erakundeak ustelkeriaren aurkako politika du ezarrita. Bertan daude jasota erakundeko langileek beren eginkizunak betetzeko orduan kontuan hartu behar dituzten jardun-printzipioak eta jardunbideak, ustelkeriari aurrea hartzeko eta ustelkeria detektatzeko.

Erakundeko Jokaera Kodearen Batzordeak baditu behar diren baliabide materialak eta giza-baliabideak delituak prebenitzeko ereduak abian jarri dela eta modu eraginkor eta proaktiboan betetzen dela bermatzeko.

## 5.2. EROSKERIAREN ETA USTELKERIAREN KONTRAKO POLITIKA

Politika horren xedea da erakundean gerta daitekeen edozein ustelkeriazko praktika prebenitu, antzeman, ikertu eta konpontzeko, baita langileak jakinaren gainean jartzeko, kontzientziatzeko eta gaiari buruzko prestakuntza emateko ere, langile orok jarraitu behar dituen printzipioak ezartzea.

Portuko Agintaritzan, konpromisoa hartu dugu gure negozioan estandar etiko eta profesionalen maila altuenak mantentzeko. Izan ere, zero tolerantziaren politika daukagu iruzurraren, eroskeriaren eta ustelkeriaren aurrean.

Xede hori lortzeko politika honek Portuko Agintaritzaren konpromisoa eta arlo horretan egiten ari diren ahaleginak azaltzen ditu eta langile guztien betebeharrak zehazten ditu, beren jarduerak eroskeriaren eta ustelkeriaren aurkako arauketa eta lege guztietara egokitzeari dagokionez. Izan ere, honako printzipio hauek hartu behar dira oinarri:

- Eroskeriaren eskaintzarik edo praktika ustelik ez egitea.
- Eroskeriaren eskaintzarik edo praktika ustelik ez onartzea.
- Portuko Agintaritzarekin harremana duten beste batzuek gure politika ezagutzen dutela bermatzea.
- Erregistroak gardenak eta argiak izatea eta eguneraturik mantentzea.
- Komunikaziorako kanal bat ematea, erraza eta zuzena, baten batek politika haustearen berri edo zantzu oinarridunak izanez gero, jakinarazi ahal izateko.
- Eroskeriaren eta ustelkeriaren aurkako gure programa berrikustea eta eguneratzea, aldian-aldian eta berehala, egoerak hala eskatzen duenean.
- Ikerketetan agintaritzekin modu irekian, gardenean eta leialtasunez lan egitea.
- Barneko diziplina-araubidea ezartzea ustelkeriarekin eta eroskeriarekin loturiko jokabideak zigortzeko.

### 5.2.1. Definizioak

**Ustelkeria:** Ustelkeria zigor-zuzenbidearen arabera egotz daitekeen jokabidea da, eskaintzak, hitzemateak, esku-erakutsiak edo emariak eskatu, onartu edo jasotzean datza, horien truke zerbait egiteko, ez egiteko edota mesede edo abantaila batzuk lortzeko.

**Eroskeria:** Edozein abantaila edo baliozko gauza (artikuluak, zerbitzuak eta ordainketak barne, baita onura, mesede pertsonal edo beste edozein gauza ere),

pertsona bati zuzenean edo zeharka eskaini edo ematen zaiona edo jasotzen dena, honako hauek lortzeko:

- pertsona batek bidegabeko eragina izateko, berak zerbait egiteko edo lortu nahi dena saritzeko;
- legezko eginbehar bat ez betetzean pertsona batek bidegabeko eragina izateko, berak halako gauza bat egiteko edo ez betetze hori saritzeko;
- legezko eginbehar bat betetzen ez denean, inork ezer ez egitea lortzeko edo norberak ezer ez egiteko;
- abantaila okerrak ziurtatzea;
- funtzionario publiko baten edo gobernuaren erabakia baldintzatzeko edo erabaki hori inork baldintzatu dezan uzteko.

**Funtzionario-eroskeria:** Administrazio publikoaren aurkako delituzko ekintza da, agintari edo funtzionario publiko batek (era berean, epaimahaikide, arbitro edo peritu batek) edo pertsona pribatu batek, norberaren edo beste inoren onurarako, honako hauek egiten (edo egitea saihesten) dituenen:

- Bere kargua erabiltzean delitu izan daitekeen ez-egitea edo ekintza bat egiteagatik, bere kabuz edo tarteko baten bidez, emari edo opari bat eskatu edo jasotzen duen edo eskaintza edo hitzemande bat onartzen duen agintari edo funtzionario publiko bat;
- Bere kargua erabiltzean delitu ez den bidegabeko ekintza bat egiteagatik, bere kabuz edo tarteko baten bidez, emari edo hitzemande bat eskatu edo jasotzen duen agintari edo funtzionario publiko bat;
- Eskatutako, jasotako edo agindutako emari baten truke, bere kargua erabiltzean egin beharreko jarduketa bat ez egiteko asmoa duen agintari edo funtzionario publiko bat;
- Emari, opari, eskaintza edo hitzemandeen bidez agintariak edo funtzionario publikoak erosten dituztenak edo erosten saiatzen direnak.

**Funtzionario publikoa:** (i) Gobernu bateko edo gobernu bateko sail, organismo edo ordezkarietako funtzionarioak edo langileak; (ii) gobernu baten edo gobernu bateko sail, organismo edo ordezkarietaren izenean ofizialki jarduten duten pertsonak; (iii) jabetza publiko osoko edo partzialeko enpresa edo negozio bateko zuzendariak edo langileak; (iv) nazioarteko erakunde publiko bateko funtzionarioak edo langileak; (v) alderdi politiko bateko zuzendariak edo langileak edo alderdi politiko baten izenean

jarduten dutenak edo funtzio ofizialak betetzen dituztenak alderdi politiko baten izenean; eta/edo (vi) kargu politikoetako hautagaiak.

### 5.2.2. Garapena

Eroskeriaren eta ustelkeriaren kontrako politikak bat egiten du enpresan lehendik dauden barne-politiken multzoarekin. Izan ere, politika horiek interesa erakusten dute indarrean dagoen legedia betetzeko eta estrategiak eta jarduketak indarrean dauden arauekin eta arlo horren inguruko praktika onenekin bat etorrarazteko. Hain zuzen ere, Portuko Agintaritzak konpromisoa du ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta horri aurre egiteko neurriak sustatu eta indartzeko ahaleginak egiteko. Hori dela eta, baztertu egiten ditu ustelkeria-mota guztiak, bai zuzenak bai zeharkakoak.

Ustelkeria aldaera guztietan prebenitzeko helburu nagusiarekin, Portuko Agintaritzak honako oinarri hauek ezarri ditu:

- **Integritatea sustatzea.**– Ustelkeria prebenitzea eta detektatzea garrantzitsua dela jakitun izanik, Portuko Agintaritzak erakundeko langileen artean, baita hornitzaileen eta kolaboratzaileen artean ere, zintzotasunaren kultura bultzatzen du, jokaera etikoei buruzko prestakuntza emanez eta horiek zabalduz, legez kontrako jardueri aurrea hartzeko eta halakoak saihesteko. Kultura hori, legez kontrako ekintzei eta iruzurrari dagokienez, “zero tolerantziaren” printzipioan oinarritzen da eta Portuko Agintaritzako langileak une guztietan indarrean dagoen legediaren babespean eta korporazioko jokaera-kodeak ezarritako esparruaren barruan jardutera bultzatzen ditu.
- **Enpresa-arretak.**– Opariek, beharizanek, ekitaldietarako gonbidapenek eta abarrek enpresaren barne-araudia bete beharko dute eta inolaz ere ezin dute eraginik izan Portuko Agintaritzako langileak ez direnen borondatean, merkataritzako onura edo abantaila desegoki bat eskuratzeko.
- **Interes-gatazka.**– Portuko Agintaritzak leialtasunean oinarritzen du bere langileekiko harremana, eta leialtasun hori langileen eta enpresaren artean sortzen diren interes komunen ondorioa da. Hori dela eta, onartzen du langileek Portuko Agintaritzaren jarduerak ez diren ekimenetan parte hartzea, baldin eta horiek aplikatzekoa den legearen esparruan garatzen badira, pertsona horiek enpresako langile gisa dituzten eginbeharrekiko lehian sartzen ez badira, eta praktika ustelak egiteko baliabide moduan erabiltzen ez badira.
- **Ordainketak izapidetzea.**– Portuko Agintaritzako langileek ez dute jasoko eta ez diete eskainiko edo entregatuko, zuzenean edo zeharka, ordainketarik (eskudirutan edo espezie bidez), ezta onurarik ere, erakunde publiko zein pribatu, alderdi politiko zein kargu publikoen zerbitzura diharduten pertsonei,

legez kontrako negozio, mesede-tratu edo beste abantaila batzuk eskuratzeko edo mantentzeko asmoz.

Era berean, Portuko Agintaritzako langileek ezingo dute opari, ordainsari, mesede edo zerbitzurik eskaini balio ekonomiko, bikaintasun edo beste edozein baldintza dela-eta erabilera ohikoa, merkataritza-erabilera, erabilera soziala edota adeitasunezkoa ez bada.

➤ **Funtzionario publikoekiko harremana.**– Ahal den heinean saihestu egin behar dira gobernuko funtzionarioei egiten zaizkien eskaintza guztiak, enpresako beharrianak barne, objektibotasun, inpartzialtasun, neutraltasun eta gardentasunaren printzipioak era eraginkorrean betetzea bermatzeko.

➤ **Errazte-ordainketak.**– Ohiko ekintza bat, hala nola prozedura burokratikoak, arintzeko edo errazteko edozein pertsonari (funtzionario publikoak barne) egiten zaizkion opariak edo ordainketak dira.

Errazte-ordainketak esanbidez debekatuta daude (segurtasun pertsonala bermatzeko egiten direnean izan ezik, aurrerantzean azaltzen den moduan).

➤ **Segurtasun pertsonalerako ordainketak.**– Langile guztien osasuna eta segurtasuna enpresaren kezka nagusia da. Egoera zehatz batzuetan, langile batek erakundeari berehalako ordainketa eskatzen badio kalte fisiko larriak edo askatasuna galtzea saihesteko (adibidez, arrazoirik gabe kartzelan sartzea, atzerriko herrialde batean trafiko-arauak hausteagatik), ordainketa egingo da, berehalako arrisku horiek ekiditeko.

➤ Halako egoeran posible eta praktikoa izanez gero, ordainketa horiek egin aurretik zerbitzu juridikoekin edo Jokaera Kodearen Batzordearekin eztabaidatu beharko dira.

Dena den, Jokaera Kodearen Batzordeko kide bati ahal bezain laster jakinarazi beharko zaio ordainketa horiek egin direla.

Enpresak beretzat gordetzen du ordainketaren berri agintari eskudunei emateko eskubidea.

➤ **Babesletzak, ekarpenak edo irabazi-asmorik gabeko erakundeekin egindako kolaborazioak.**– Portuko Agintaritzak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin kolaboratu dezake lege ezarritako formulak eta mugak betez eta sekula ere ez da erabili behar ustelkeria- edo eroskeria-egintzak estaltzeko.

➤ **Alderdi politikoan edo sindikatuen aldeko ekarpenak.**– Portuko Agintaritzak ez die laguntza, ekarpen edo dohaintzarik ematen politikariei eta/edo alderdi edo erakunde politikoei, ezta sindikatuei ere. Halako erakundeek ekarpenak egin nahi izanez gero, Jokaera Kodearen Batzordeak onartu beharko ditu.

- **Hirugarrenetikiko eta bitartekoekiko harremanak.**– Portuko Agintaritzako langileek etika profesionaleko praktika onenak jarraitzen dituzte bezero, hornitzaile eta beste profesional batzuekiko harremanetan. Enpresak ustelkeriaren kontrako arauak barnean hartzen dituzten printzipio etikoak eskatzen ditu kontratu-harremanetan.
- **Informazio konfidentziala tratatzea.**– Portuko Agintaritzak diskrezio osoz eta pribatutasuna babestuz tratatuko du bezeroei, hornitzaileei, langileei eta abarrei buruzko informazioa. Informazio hori isil-gordean mantendu beharko da. Erakundeko langileek ez dute informazioa bidegabe erabiliko norberaren edo beste inoren onurarako.
- **Kapital-zuriketa.**– Portuko Agintaritzak ez du dirua zuritzea ezta jarduera terroristak finantzatzea errazten. Hori dela-eta, agintari eskudunekin lankidetzan aritzen da kapitalak zuritzearen eta terrorismo-jarduerak finantzatzearen aurkako borrokan. Horretarako, arlo horretan indarrean dauden lege-arauak eta erregelamenduak betez eskatzen zaion informazio osoa ematen du eta transakzio susmagarriak salatzen ditu.
- **Eragiketen erregistroa.**– Portuko Agintaritzak gauzatzen dituen eragiketa guztiak argi eta zehaztasunez jasoko dira dagozkien kontabilitate-idazpenetan; erregistro hori egindako transakzio guztien irudi leiala izango da. Erakundeak ezarri du eta mantendu egiten du informazio finantzarioa lantzeko barne-kontrolerako sistema egoki bat. Halaber, bermatzen du horren eraginkortasuna aldian-aldian berrikustea.
- **Gardentasun-bermea.**– Portuko Agintaritzaren iritziz, zuzendaritza-organoei eta kanpoko eragileei bidaltzen zaien informazioaren gardentasuna garrantzitsua da. Erakundeak eskaintzen duen informazioa egiazkoa eta osotua da, bezeroengan, hornitzaileengan eta interesa duten gainerako pertsonengan ahalik eta konfiantza handiena sortzeko. Portuko Agintaritzak baditu mekanismo egokiak ustelkeria kasuei aurrea hartzeko, horiek antzemateko eta ikertzeko. Bere arlo desberdinetan barne-kontrolerako sistemen eraginkortasuna ebaluatzen du eta kontrol-ereduen eta betetze-mailaren jarraipena egiten du.

### 5.3. PUBLIZITATEAREN ETA BABESLETZAREN POLITIKA

Politika honek ezartzen ditu betekizun eta prozedurak publizitate- eta babesletza-ekintzak aplikatzekoak diren legeen, korporazioko jokaera-kodearen eta Portuko Agintaritzaren beste edozein barne-araubideren arabera egiteko; hori guztia honako helburu hauek betetzeko:

- o Publizitate- eta babesletza-jarduerak egokiak direla eta erakundearen lehentasun estrategikoekin eta komunikazio-lehentasunekin bat datozela bermatzea;
- o Publizitate- eta babesletza-jardueren ondorioz sorturiko gastuak behar bezala kudeatu eta erregistroan jasotzen direla bermatzea;
- o Behar den agintaritz-maila ezartzea, publizitate- eta babesletza-jarduerak onartzeko eta horiek gauzatzeko eta ebaluatzeko;
- o Enpresan onespenez jasotzeko eta txostenak egiteko egitura gardena eratzea.
- o Arlo horren gaineko informazioa langileen artean zabaltzea, kontzientziatzea eta prestakuntza ematea.

Jarduera horiek arriskutsuak izan daitezke, ustelkeria edo eroskeria ezkutatzeko erabil daitezkeelako. Ildo horretan, politika honen xedea da langileei gaiaren berri ematea, kontzientziatzea eta prestakuntza ematea.

#### 5.3.1 Definizioak

**Kultura- eta/edo jolas-antolakundeak eta elkarteak.** Beren estatutuekin bat, kultura- eta/edo jolas-antolakundeak edo elkarteak irabazteko asmorik gabeko erakundeak dira. Beren gizarte-helburu edo jardun nagusia kultura- edo kirol-jarduerak edo antzekoak antolatzea, garatzea eta betetzea da, eta Portuko Agintaritzari legez esleitutako helburuak betetz, hainbat kultura-jarduera, kirol-jarduera desberdinak eta abarrak ezagutarazi, zabaltzeko edo sustatzeko aritzen dira.

**Publizitatea eta babesletzak:** Publizitate- eta babesletza-jarduera kulturako, kiroleko edo antzeko jarduerak antolatzeko lankidetzan eta/edo kontraprestazioan datza, erakundearen barne-araudian eta aplikatzekoak diren legetan azaldutakoarekin bat etorriz.

**Abiarazlea:** Publizitate-jarduera edo babesletza proposatzen duen erakundeko zuzendaria, kontseilaria edo langilea da.

**Baimen-emailea:** Baimen-emailea erakundeko langile edo batzorde bat izaten da eta babesletza-eskaerak berrikusi, onartu edo gaitzetsi egiten ditu.

#### 5.3.2. Garapena

### **- Jarraitu beharreko prozedura**

Portuko Agintaritzaren publizitateari eta babesletzari loturiko prozedurak honako hauek dira:

- Publizitate- eta babesletza-jarduerak onartzeko eskaera egin duen saileko arduradunak zehaztu behar ditu laguntzaren hartzaillea, zenbatekoa eta xedea.
- Babesletzak Portuko Agintaritzaren lehendakariak onetsi behar ditu eta aurretik indarreko legeriaren arabeko administrazio-espeditentea izapidetu behar da.

Bereziki aintzat hartu beharko da Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra (ALO), zeinak hau ezartzen duen "Enpresa- eta fundazio-sektore publikoak sinatutako lankidetzak- eta babesletza-akordioak" atalean:

*"Aurrekontuen azaroaren 23ko 47/2003 Lege Orokorren 3. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoarekin bat etorritik enpresa- eta fundazio-sektore publikoa osatzen duten erakundeek aukera izango dute babesletza-akordioak sinatu eta finantzatzeko jarduera sozialak, kulturalak, kirolekoak edo zientifikoak sustatzeko. Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak txostena egin beharko du aurretik.*

*Aurreko paragrafoan jasotako urteko ekarpenek ezingo dute guztira ekitaldian etekinaren % 2 gainditu erakundearen aurreko ekitaldiko zergak eta gero.*

*Erakundearen urteko kontuak onesten ez diren bitartean ekarpen horiek ezingo dute etekinaren % 2 gainditu erakundeak aurreko ekitaldirako kalkulaturako zergak eta gero. Kalkulu horri behin betiko likidazioa egingo zaio urteko kontuak onetsi eta gero".*

- Publizitate-jarduerari dagokienez, Merkataritza Saileko hierarkian posizio altuena duenak onartu beharko ditu gutxienez.
- Babestuko den ekitaldia ezin da Portuko Agintaritzaren jokaera-kodean jasotako printzipio eta balioen kontrakoa izan, eta merkataritzaren ikuspuntutik interesgarria izan behar du Portuko Agintaritzarentzat, erakundeari legez esleitutako helburuen aldetik.
- Ekitaldia antolatzen duen erakundeak legez eraturikoa izan behar du eta ospe oso ona eduki, Portuko Agintaritzaren irudia ez kaltetzeko.
- Babesletza-jarduera bat egin baino lehen, ekitaldiaren antolakuntzaz arduratzen diren pertsonen nortasuna egiaztatuko da.
- Babesletza prestatzeko Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailera Orokorra onartzeko modukoa eta legez baliozkoa den idazki batean jaso behar da, eta sekula ez da egingo funtsen eskudiruzko transferentziarik.

- Emandako funtsak erabiltzeko modua kontrolatu eta gainbegiratuko da eta babesletza-jarduerari loturiko dokumentazio guztia behar bezala gordeko da.

#### **- Publizitate- eta babes-jardueren kontrola eta ikuskapena**

##### **Aurrekontua**

Urtean behin erakundeak aurrekontuan publizitate- eta babesletza-jardueretarako ezarritako baliabideak onartu beharko ditu:

- Lehendakari-kargua betetzen duenak ezarriko du babesletza-jarduerak egiteko urteko aurrekontua eta erakundearen ohiko aurrekontu-prozesuaren parte gisa aurkeztuko du.
- Babesletza-jardueretara bideratutako aurrekontuaren aldaketak Portuko Agintaritzaren aurrekontu-prozeduren arabera egingo dira.

##### **Eskaeren eta funtsak erabiltzeko moduaren kontrola**

- Eskaeren eta entregatu diren funtsak erabiltzeko modua kontrolatzeko eta ikuskatzeko lanek honako hauek hartuko dituzte barnean:
- Babesleak jarritako zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, inolaz ere ezin da dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago izan.
- Onuradun diren erakundeek baliabide propioen ekarpena egin beharko dute babestuko den proiektua gauzatzeko, proportzionaltasun-irizpidea betez, garatuko den kultura-jardueraren xederako.
- Erakundearen lehendakari-kargua betetzen duenak urteko ebaluazioa egingo du publizitate- eta babesletza-jarduerari dagokienez. Txosten hori kontuan hartuko da hurrengo ekitaldiko babesletzak zehazteko.
- Publizitate- eta babesletza-jarduerak zehatz eta mehatz jasoko dira Portuko Agintaritzaren liburu eta erregistroetan.
- Datu-base bat eratuko da, onartu diren eta onartu ez diren publizitate-kanpainak eta babesletza-jarduerak biltzeko.

## 5.4. OPARIEN ETA ARRETEEN POLITIKA

Politika honek ezartzen ditu betekizun eta prozedurak beste pertsona bati (edo bere mesederako) opariak, esku-erakutsiak eta beharrizanak, hala nola bazkariak eta aisialdia, eskaini eta onartzeko aplikatzekoak diren legeak, korporazioko jokaera-kodea eta Portuko Agintaritzaren beste edozein barne-araubide betez.

Jarduera horiek arriskutsuak izan daitezke, ustelkeria edo eroskeria ezkutatzeko erabil daitezkeelako. Ildo horretan, politika honen xedea da langileei gaiaren berri ematea, kontzientziatzea eta prestakuntza ematea.

Politika hori Bilboko Portuko Agintaritzak eroskeriaren eta ustelkeriaren aurreko zero tolerantziaren eta integritatearen kulturarekin duen konpromisoaren parte da. Aurreko guztia estatuko portu-sistemaren balioekin, indarreko legeriarekin eta SR10 ziurtagirian jasotako gizarte-erantzukizuneko printzipioekin bat etorri aplikatzen da.

### 5.4.1. Definizioak

**Opariak, esku-erakutsiak eta beharrizanak:** Opariak, esku-erakutsiak eta beharrizanak (aurrerantzean "Opariak") diruzko balioa edo beste balio bat duten artikulu guztiak dira, esker ona adierazteko ematen direnak.

Oparien multzoan ez dira sartzen publizitate-kanpainak edo babesletzak. Izan ere, gai horiek Publizitate eta Babesletzaren Politikan jorratu dira.

**Bazkariak:** "Bazkariak" kontzeptuak janari edo edariekin loturiko edozein gasturi egiten dio erreferentzia.

**Aisia:** "Aisia" kontzeptuan kultura-, gizarte-, kirol-, edo entretenimendu-ekitaldi guztiak sartuko dira (hala nola kontzertuak, antzerkia, museoak, ehizaldiak, itsasontzi-ibilaldiak, golfa...).

**Beharrizanak:** Beharrizanetan bazkari edo aisiari loturiko gastuak, bidaiak eta ostatua ordaintzea sartzen da.

**Hirugarrenak:** Portuko Agintaritzak enplegatzen ez duen edozein pertsona (funtzionario publikoak barne, baina ez haiek bakarrik) edo erakunde juridiko, zeinekin enpresak negozioak egiten baititu edo negozioak egiteko asmoa baitu.

### 5.4.2. Garapena

Portuko Agintaritzak osatzen duten langileek ez dituzte onartuko bezero edo hornitzaileek eskainitako opari edo beharrizanak, horiek ohiko erabileretatik kanpo daudenean, baita ohiko jardun sozial edo adeitasunezkoetatik ateratzen direnean edo Portuko Agintaritzaren alde erabaki objektiboak hartzeko gaitasuna kolokan jartzen dutenean ere, besteak beste, opari edo arreta horiek modu desegokian merkataritza-

harreman, harreman profesional edo administratiboetan eragiten dutenean, erakunde publikoekiko zein pribatuekiko harremanetan.

Bezeroen edo hornitzaileen opari edo arretak onartzea zehaztuko duten jarduketaraildoak hauexek dira:

- (i) Opari horiek orokorrean apalak, mugatuak eta egokiak izango dira.
- (ii) Ezin da eskudirurik onartu.
- (iii) Aurreko zehaztapenak betetzea ezinbestekoa izango da, eta arreta berezia eskainiko zaio balizko bezero edo hornitzaile horiekin kontratu-harremana ezarri edo berritu daitekeen kasuetan opariak onartzeari.

Aurreko zehaztapenetan jasotako kasuetatik at Portuko Agintaritzako langileren batek bezeroengandik edo hornitzaileengandik opari edo arretaren bat jasoz gero, objektua itzuli beharko du eta horri buruzko azalpenak eman beharko dizkio Portuko Agintaritzari.

Kulturagatik edo beste arrazoiren batengatik itzulketa ezin baldin bada gauzatu, oparia edo arreta Giza Baliabideen Sailean entregatuko da eta ondoren zozketatu egingo da Portuko Agintaritzako langileen artean.

#### - **Enpresa-opariak**

Enpresa-opariei dagokienez, Portuko Agintaritzako langileek honako jarraibide hauek bete beharko dituzte:

- a) Langile batek ezingo dio hirugarren bati (edo bere mesederako) oparirik edo arretarik eman, eskaini edo onartu, lehian bidegabeko onura edo abantaila bat eskuratzeko nahian.
- b) Opariak ez dira hauen truke edo hauen baldintzapean eskainiko ezta onartuko: (i) lortu nahi den jardueran, hala nola negoziarako aukera izatean, bidegabeko eragina izatea; (ii) eduki behar ez den abantaila lortzea edo ematea; (iii) pertsona bat lege-betebeharrak ez betetzera bultzatzea; (iv) pertsona batek bere lege-betebeharrak ez betetzea (ez-egiteagatik) eragitea; edo (v) erabakiak hartzeko prozesu batean hartzailearen edo bere enplegatzailearen objektibotasuna edo eskumenekotasuna mugatzea edo horietan eragina izatea.
- c) Kontu handiz ibili behar da opari bat ematea edo jasotzea eroskeriatzat jo ez dezan. Gure negozioan eragina izan dezaketen funtzionario publikoei edo beste batzuei opariak eskaintzeak edo emateak hainbat lege-arrisku dakartzate, eta horiek ustelkeriaren aurkako legeekin areagotu dira. Hori dela eta, edozein ekintza desegokiren itxura ere saihestu egin behar da. Horretarako, bakoitzak bere irizpide egokiak erabiltzea espero da.
- d) Beste batengandik opari bat onartzeko edo halako bat emateko aukera

aztertzen den bakoitzean, honako galdera hauek egin behar dira:

- Oparia egokiro ematen ari da merkataritza-harremana ezarri edo mantentzeko edo, aitzitik, eman behar ez den pizgarri bat baino ez da edo sari bat, hartzaileak, bere gaitasun profesionala erabiliz, egin duen edo egin ez duen gauza batengatik?
  - Hartzaileak eroskeria dela gaizki uler dezake?
  - Publikoak, oro har, nola ikusiko luke egoera (adibidez, egunkari batean argitaratzen bada)?
- e) Eskainiko diren opari guztiek txikiak, murriztuak eta proportzionalak izan beharko lukete. Opariak eskaintzea inolaz ere ez da egongo, modu inplizituan edo esplizituan, produktu edo zerbitzu bat iraganean edo etorkizunean erabiltzeko edo erosteko baldintzaren pean.
- f) Oparien izaerak, balioak eta maiztasunak zentzuzkoak izan behar dute, banan-banan zein multzoan, hartzaile berari emandako baliozko gauza guztiak kontuan hartuta.
- g) Esan beharra dago opariak ematea edo jasotzea mugatuko duen lege-araubide bat egon daitekeela. Halakoetan, opariak dagokien lege-araudiarekin bat eskaini, entregatu eta onartu beharko dira, politika honetan ezarritakoari jarraikiz.
- h) Opariak era publikoan eta gardenean eskaini, eman eta onartu behar dira, eta ez bitartekoen bidez.
- i) Ezin da opari gisa eskaini edo onartu eskudirua edo horren baliokidea (opari-txartelak, txekeak edo txartelak).
- j) Opariak, oro har, ez zaizkie emango beste baten ezkontideari, familiakoei edo lagunei, pertsona horren negozioarekin zerikusirik ez badute. Edozein salbuespen egin nahi izanez gero, alde zuzenetik, langilearen gainbegiraleak idatziz onartu beharko du.

#### - **Enpresa-bazkariak**

Enpresa-bazkariak ezingo dira eskaini edo onartu, honako egoera hauetan ez bada:

- a) Enpresa-bazkariak Dietei eta Bidaia Gastuei buruzko Prozeduran ezarritakoari jarraikiz egingo dira, bertaratuak eta lan-bazkariaren xedea identifikatuta, Auditorietza Operatiboetan xedatutakoa eta Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Orokorrek adierazitakoa betez.
- b) Enpresa-bazkariak xumeak izan behar dute, hartzailearen mailaren eta okasioaren arabera, baita murriztuak eta proportzionalak ere.

c) Horretarako egokiak diren lekuetan antolatuko dira.

- **Ekitaldiak eta aisialdi-jarduerak**

Aisialdi-ekitaldietarako edo jarduera publikoetarako gonbidapenak beste batzuei eskaini ahal izango zaizkie edo onartuak izan ahalko dira, baldin eta kostu onargarria badute, eta enpresako oparien inguruko gidalerro orokorrak eta atal honetan zehaztutako politikak betetzen badituzte.

Aipatu ekitaldirako sarrera bat behar izanez gero, sarreran agertzen den prezioa joko da merkatuko bidezko prezioztat.

Ekitaldiak otorduak barnean hartzen baditu, horien kostua ordaindu behar den prezio egokia izango da.

## 5.5. HORNITZAILE ETA KONTRATISTEKIN HARREMANAK

Portuko Agintaritzaren helburuak dira bere jarduerako kudeaketa eraginkortasun, ekonomia, produktibitate eta segurtasunari dagokionez baldintza ezin hobeetan gauzatzea, garapen iraunkor batean eta ingurumena errespetatuz.

Aurrekoarekin lotuta, Portuko Agintaritzak lehia askea bultzatzen du eta kontratistak, hornitzaileak edo kanpo-kolaboratzaileak hautatzeko prozesu inpartzialak eta objektiboak sustatzen ditu.

Gainera, Portuko Agintaritzak jokaera-kode honen edukiak eta printzipioak kolaboratzaileen artean sustatzen eta zabaltzen ditu. Hala, beraientzat ere erabilgarri jartzen du etika-kanala. Hori izango da bide bakarra fede onez irregulartasunak edo kodearen urraketak komunikatzeko.

## 5.6. SENIDEAK ETA LAGUNAK

Portuko Agintaritzako langile batek beste langileren batekin laguntasun-harremana, harreman sentimentala edo ahaidetasun-harremana baldin badu eta lehenengo horrek lehiaketa publikoen administrazio-prozedurekin lotuta dauden erabakiak hartzeko eskumena baldin badu edo erabaki horietan eragin ahal baldin badu (kontratazioari dagokionez, ondarearen kudeaketa publikoari dagokionez, etab.), eta horregatik bere objetibotasuna dudan jartzen baldin bada, horren inguruan hitz egin beharko dio hierarkian bere goian dagoenari eta azken horrek orientatu edo hala dagokionean, etika-kanalera komunikatu beharko du.

## 5.7. JARDUERA OSAGARRIAK

Portuko Agintaritzak bere langileekin duen harremana elkarrekiko leialtasunean oinarritzen da, eta leialtasun hori lortzen da Portuko Agintaritzak pertsonetikiko eta haien laneko ongizatearekiko konpromisoa duelako eta langileak era berean erakunderako erabaki onenak bilatzen saiatzen direlako.

“Jarduera osagarriak” dira ordainduak izan edo ez izan, langileek beraien ohiko lanetik kanpo Portuko Agintaritzarentzat egiten dituzten lanak. Adibidez, langile batek beste lan bat baldin badu Portuko Agintaritzakoaz gain.

Edonola ere, jarduera osagarri horiek 2023ko apirilaren 12ko 53/1984 Legean ezarritakoak arautuko ditu, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunari buruzkoak, hain zuzen ere.

Zentzu horretan,

- Portuko Agintaritzan errespetatu egiten da langileek beste jarduera batzuk egiteko duten eskubidea, betiere, ez direnean gatazka interesdunak sortzen

eta Portuko Agintaritzako interesak beraien jarduketetan eragina izan dezaketenean norbere interesen edo hirugarrenen interesen aurretik jartzen baldin badira.

- Portuko Agintaritzak ez du bere mesedetan edo hirugarrenen mesedetan eragingo inolako negozio, enpresa edo lanbide-jarduera edo partikularrekin zerikusia duten erabakietan, modu zuzenean edo ez zuzenean parte hartzen duenean edo interes pertsonala duenean.
- BPAko langileek nahitaez idatziz informatu beharko diote enpresaren organigraman zuzenean goian dutenari egiten dituzten jarduera osagarrien edo egin nahi dituztenen inguruan. Derrigorrez abisatu beharreko jarduera osagarriak dira Portuko Agintaritzako interesetan eragin dezaketenak, interesen gatazka sortzen dutenak edo langileak bere lan-orduak ez betetzea eragiten dutenak.
- Organigraman zuzenean goian dagoen pertsonak Jokaera Kodearen Batzordeari horren berri eman beharko dio ahalik eta azkarren, batzordeak erabakiak har ditzan.

## 5.8. AKTIBOAK ERABILTZEA ETA BABESTEA

Portuko Agintaritzak langileei emango dizkie lana zuzen betetzeko behar dituzten baliabideak.

Portuko Agintaritzako langileek lana gauzatzean arduraz eta egoki erabili beharko dituzte enpresaren baliabideak, besteak beste, instalakuntzak, ibilgailuen eta ontzien flota, ekipo informatikoak eta telefoniakoak, laneko arropa, altzairuak, bulegoko materiala, etab.

Zentzu horretan,

- Enpresak ematen dizkien baliabideak apaltasunez eta modu efizientean erabiliko dituzte eta erabilera-kostuak erakundera doituko dituzte.
- Horrez gain, Portuko Agintaritzako interesei kalte egin diezaieketen erabilera desegokietatik babestu eta zaindu egin beharko dituzte.
- Absente daudenean edo gela berean lankiderik ez dagoenean ez dituzte leku ikusgaietan utziko norberaren edo enpresaren jabetzeko ekipo baliotsuak, hala nola telefono mugikorrek, tabletak, ordenagailu mugikorrek eta abar. Arreta berezia emango zaio absentsia luzeko aldietan lanpostua zuzen jasota uzteari eta baliozko objektuak ikusgai ez uzteari.
- Portuko Agintaritzaren jabetzako objektuak lantokian egon beharko dira berriazko baimenik izan ezean edo funtzioak egiteko erabiltzea justifikatzen denean (adibidez, enpresa-bidaiek edo urrutiko noizbehinkako lana).

- Portuko material, ekipo eta instalazioak arduraz erabili beharko dira eta Portuko Agintaritzak kontrakoa esan ezean, behar direnerako bakarrik erabiliko dira eta ez dira erabiliko helburu partikularretarako.
- Fotokopiagailua bakarrik erabilera pertsonaletarako erabili ahalko da salbuespen-kasuetan eta irismen mugatuarekin.
- Langileek BPAren jabetzako autoak erabiltzen dituztenean erakundeak emandako argibideetan xedatutakoa bete beharko dute.
- Debehatuta dago Portuko Agintaritzaren ondasunez jabetzea, ondasun fisikoak, jabetza intelektualekoak (garapen informatikoak, langileek egindako azterlanak, etab.) edo barne-informaziokoak, besteak beste.

Indarreko araudi-esparruaren testuinguruan, Portuko Agintaritzak eskubidea izango du bere jabetzako aktiboak zuzen erabiltzen direla zaintzeko kontrolak egiteko.

Bukatzeko, gogorazi nahi da lan-jarduna bukatzean bere garaian eman ziren eta erakundearenak diren ondasun guztiak itzuli egin behar direla.

## 5.9. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Bilboko Portuko Agintaritzak laneko segurtasun- eta osasun-politikak ezartzea sustatzen du eta indarreko legeriko prebentzio-neurriak aplikatzen ditu.

Horrez gain, partaidetzako enpresek eta enpresa hornitzaileek eta orokorrean elkarlanean diharduten enpresa kolaboratzaileek Portuko Agintaritzaren arauak eta osasun- eta segurtasun-politikak bete ditzaten saiatzen da.

Portuko Agintaritzako langile guztiek ezagutu eta bete behar dituzte lanean osasuna eta segurtasuna babesteko arauak; halaber, norbere segurtasunaz eta erakundeko beste pertsonen segurtasunaz, bezeroenaz, hornitzaileenaz, kolaboratzaileenaz eta orokorrean jardueren eraginez kaltetuak izan daitezkeen guztien segurtasunaz arduratu behar dira langileak.

Bestalde, Portuko Agintaritzak bere langileei behar dituzten baliabide eta jakintzak emango dizkie zereginak segurtasunez eta inguru osasuntsu batean gauzatu ahal izateko.

Portuko Agintaritzak laneko arriskuak prebenitzeko plana eta urteko osasun-programak ditu langileentzat.

## 5.10. INGURUMEN-JASANGARRITASUNA

BPAk ingurumena babesteko konpromisoa hartzen du. Horrekin lotuta, erakundeko langile guztiek honakoak egin beharko dituzte:

- Funtzioak betetzen dituztenean aplikatzekoa den ingurumen-legeria eta -

araudia betetzea.

- Aktiboki laguntzea kutsadura prebenitzen eta baliabide naturalak modu jasangarrian erabiltzen.
- BPA n ezarritako ingurumen-kudeaketako sistema etengabe hobetzen parte hartzea eta ingurumen-helburuak eta -xedeak lortzen laguntzea.
- Bezeroen, erabiltzaileen eta hornitzaileen artean portuko lan guztietan ingurumen-jasangarritasunarekiko errespetua bultzatzea.
- Gardentasuna eta ingurumen-komunikazioa erraztea.

### 5.11. INFORMAZIOA KUDEATZEA

Erakundearen menpe dauden pertsonak eta erakundearen kolaboratzaileek Portuko Agintaritzari buruzko informazioa gordetzeko betebeharra daukate eta behar denean komunikatuko dute informazio hori, betiere dagokion kontuarekin, eta ezingo dute informazioa norbere edo hurbileko hirugarrenen mesedetan erabili.

- Langile guztiek obligazioa dute datu pertsonalak legez, leialtasunez eta gardentasunez tratatzeko, soilik legezko xede profesionaletarako erabiltzeko eta gorabeherak edo segurtasun-arrakalak gertatzen direnean datuak babesteko ordezkariari jakinarazteko.
- Portuko Agintaritzan sortzen den informazio guztia, baita finantzazkoa eta beste mota batekoa ere, egindako transakzioen eta erakundearen errealitatearen irudi garbia izan behar da. Horregatik, beharrezkoa da jarduerak behar bezala dokumentatzea eta erregistroak modu egokian gordeta edukitzea, datuak eta informazioa administratzeko arau eta prozedurekin bat eginez. Horrez gain, txukun eta eskuragarri egon behar da langilearen ardurapean dagoen informazioa.
- Lanbide-jardueran sortzen den informazioa enpresarena denez, informazio hori kontsultatu behar dutenentzat eskuragarri egon beharko da.  
Era berean, informazioa babestuta eta baimenik ez dutenek ez eskuratzeko moduan egon beharko da.
- Lanbide-jardueran sortzen diren eskuliburuak, proiektuak, azterketak edo bestelako dokumentazioa erakundearenak dira.
- Portuko Agintaritzako langileek erabili dezaketen informazio konfidentziala soilik dagokion helburu zehatza betetzeko erabiliko da.
- Informazioaren konfidentziasunaren printzipioarekin bat eginez, laneko jardueran sortu den eta konfidentziala izan daitekeen informazioa ez da ezagutaraziko behar bezala justifikatuta ez baldin badago. Betebeharrak horrek langileak Portuko Agintaritzarekin daukan harreman profesionala eten eta

gero ere iraun egingo du. Konfidentzialtasun-betebehar honen barnean sartzen da, besteak beste, Portuko Agintaritzako langileei dagokien informazioa.

## 5.12. IRUDIA ETA IZEN ONA

Portuko Agintaritzako langileek arretaz jardun beharko dute eta Bilboko Portuaren irudi eta izen ona zaindu beharko dituzte erakundea ordezkatzeko dutenean.

Aurretik aipatutakoa bereziki garrantzitsua da komunikabideekin hitz egiten denean, jardunaldi profesional edo mintegietan parte hartzen denean edo jendaurreko hedapena izan dezakeen edozein jarduketa egiten denean.

Komunikabideei emandako datuak eta informazioa egiazkoak izan beharko dira eta ekidin egingo da engainuzko komunikazioa edo jasotzaileak oker interpretatu dezakeena.

## 5.13. KORPORAZIOAREN HELBIDE ELEKTRONIKOA, TELEFONOA, INTERNET ETA TEKNOLOGIA BERRIAK ZUZEN ERABILTzea

Korporazioaren helbide elektronikoa, telefonoa eta Internet bakarrik laneko helburuetarako eta egin behar diren zereginetarako erabili ahalko dira. Helburu pribatuetarako erabilera mugatuta eta justifikatuta egon behar da eta erabilera horrek ez du inolaz ere oztopatuko langileak egin beharreko lana.

Lan egiteko tresna horiek Portuko Agintaritzak eskaintzen ditu egin beharreko lanak hobeto gauzatu ahal izateko.

### Internet

Internet erabiltzean ez daude baimenduta honakoak:

- Internet-konexioa gehiegikeriaz erabiltzea lanetik kanpoko informazioa kontsultatzeko.
- Berriaz eduki pornografiko, sexista, arrazista, xenofobo edo homofoboetara sartzea eta webgune horietako edukiak kargatu, deskargatu edo banatzea. Arautegi hau ez betetzeak zehapen-araubidean zigor osagarriak ekarriko ditu.
- Edukiak argitaratzea edo sexu, arraza, sexu-orientazio, erlijio edo ideologia arrazoiak direla medio edo aniztasun funtzionala duten pertsonetik mehatxu, irain, gaizki esateak edo komentario diskriminatzaileak dituzten mezuak bidaltzea. Arautegi hau ez betetzeak zehapen-araubidean zigor osagarriak ekarriko ditu.
- Jabetza intelektualaren legeak hausten dituzten edukiak dituzten webguneetara, P2P (peer to peer) sareetara edo bestelako baliabideetara

sartzea.

- Kaltegarria izan daitekeen edo Portuko Agintaritzaren segurtasunerako arriskutsua izan daitekeen edukia duten programak edo fitxategiak deskargatzea. Zalantzarik izanez gero, sistema kudeatzen dutenei galdetu.
- Lanetik kanpokoak diren foro, sare sozial edo fitxategiak partekatzekeo sistemetara sartzea.
- Bakarrik pertsonalak diren jarduera edo helburuak sustatzea.
- Portuko Agintaritzaren edo bere ordezkarien irudia kaltetu dezaketen helburuetarako Internet erabiltzea.

### Intranet

Intranet laneko jarduerak egiteko erabiltzen diren webgune, programa eta fitxategiak dira. Intranet erabiltzean ez dira honakoak baimentzen:

- Norberarena ez den identifikagarri batekin sartzea edo sartzen saiatzea edo identitate bat ordezten saiatzea.
- Berariaz erabilera publikoko gisa sailkatu ez diren edonolako formatuetako dokumentazioa, fitxategiak edo informazioa hirugarrenei banatzea Portuko Agintaritzaren baimenik gabe. Kasu horietan pribatutasunari eta jabetza intelektualari buruzko arautegia aplikatuko da.

### Korporazioaren helbide elektronikoa

Ez dago baimenduta korporazioaren helbide elektronikoa gehiegi erabiltzea helburu pribatuetarako. Hala, irismena mugatua izan behar da eta inolaz ere ez da oztopatuko norberaren lana zuzen egitea.

Korporazioaren helbide elektronikoa helburu pribatuetarako erabiltzea langilearen ardura izango da eta sortu daitezkeen kalteen aurrean erantzun egin beharko dio Portuko Agintaritzari.

*Spam* mezuak irekitzea saihestuko da, baita ere identifikatu gabeko bidaltzaileen mezuak edota fidagarriak ez direla susmatzen diren bidaltzaileen mezuak irekitzea ere. Segurtasun-gomendioak beti aintzat hartu beharko dira. Zalantzak sortzen direnean, Eraldaketa Digital Sailari kontsultatu.

“Erakunde guztiari” zuzendutako mezuak aurretik baimendu beharko ditu Portuko Agintaritzako organigraman zuzenean goiko postuan dagoenak.

Halaber, mezu horiek euskaraz eta gaztelaniaz bidali beharko dira. Mezu elektronikoa bat talde bati bidaltzen zaionean langileak bidalketa bi hizkuntzetan egitea baloratu beharko du. Ildo horretatik, Portuko Agintaritzak xede horretarako itzulpen-baliabideak eskaintzen ditu.

Korporazioaren helbide elektronikoa erabiltzean ez daude baimenduta honakoak:

- Eduki desegokiak, legez kanpokoak, iraingarriak, mehatxatzaileak, gaizki esateak edo diskriminatzaileak bidaltzea sexu, arraza, sexu-orientazio, erlijio edo ideologia arrazoiak direla medio edo aniztasun funtzionala duten pertsoneri zuzenduta. Arautegi hau ez betetzeak zehapen-araubidean zigor osagarriak ekarriko ditu.
- Norberarena ez den identifikagarri batekin posta elektronikoko postontzian sartzea edo sartzen saiatzea edo identitate bat ordezten saiatzea.
- Bakarrik pertsonalak diren jarduera edo helburuak sustatzea.
- Katean egiten diren eskutitz edo mezuak, zakarrontzira botatzeko mezuak edo eskatu ez diren mezuak (*spam*) banatzen laguntzea.
- Portuko Agintaritzaren edo bere ordezkarien irudia kaltetu dezaketen helburuetarako erabiltzea.

#### Tresna horien erabilpen-kontrolak

Baliabide horiek behar bezala erabiltzen ez direnaren seinaleak baldin badaude, Portuko Agintaritzak korporazioaren Internet, telefonoa eta helbide elektronikoa eta BPAko langileentzat eskuragarri jarritako gainerako teknologia berriak zenbat aldiz erabiltzen diren, erabilera horren iraupena eta kontsultatutako edukiak aztertuko ditu.

Portuko Agintaritzak datu pertsonalak babesteko lege-betekizunak errespetatuko ditu, intimitaterako eskubidea babestuko du eta bezeroek, langileek, hornitzaileek, kanpokolaboratzaileek eta antzekoek emandako datu pertsonalak zainduko ditu.

Portuko Agintaritzako datu pertsonalen ordezkariak, legez ezarritako baldintzetan, baimena eman ahalko du norbanakoei edo taldeei buruzko informazioa kontsultatzeko. Eraginpekoen aurretiaz jakinaraziko litzaieke.

#### Zibersegurtasuna, informazioa babestea eta teknologia berriak arduraz erabiltzea

BPAk informazio-sistemak eta informazioa babesteko neurriak hartuko ditu (Segurtasuneko eskema nazionalarekin eta ISO 27001 arauarekin lerrotuz). Gainera, teknologia berriak etikaz erabiltzen direla zainduko da (Adimen Artifiziala, datuen analisisa...).

Portuko Agintaritzako plantillak obligazioa du informazioa eta sistema digitalak babesteko, aurretik aipatu ditugun arauekin bat etorritik. Bereziki:

- Langile bakoitzak ardura izango du sarbide-gakoak zaintzeko. Hala, besteei lagatzea edo partekatutako erabilera ekidingo ditu eta segurtasun-gorabeherak (informazioa galtzea, sarbide okerrak, zibererasoak...) berehala jakinarazi beharko ditu.
- Portuko Agintaritzak zibersegurtasunari eta informazio digitalaren erabilera

etikoari buruzko aldizkako prestakuntza emango du.

- Berariaz debekatuta dago tresna digitalak edo AA oker erabiltzea eduki iraingarriak, diskriminatzaileak edo engainagarriak edo erakundearen edo langileen izen ona kaltetu dezaketenak sortu edo zabaltzeko.
- Adimen artifiziala eta teknologia berriak erabiltzen direnean modu arduratsuan, gardenean eta indarreko araudia betez jardun beharko da, zehertasunak ekidingo dira eta pertsonen eskubideak babestuta daudela bermatuko da.

## 6. JOKAERA-KODEA BETETZEA

### 6.1. JOKAERA-KODEAREN BATZORDEA

Bilboko Portuko Agintaritzak etikarekin, integritatearekin eta gizarte-erantzukizunarekin duen konpromisoaren barnean dago jokaera-kode honetan jasotako balioak, printzipioak eta jokaera-jarraibideak oinarri hartuta desegokiak diren jarduketa guztiak komunikatzea.

Kode hau modu eraginkorren betetzen, gainbegiratzen eta kontrolatzen dela bermatzeko Jokaera Kodearen Batzordea sortu da. Gainbegiratze- eta kontrol-organoa da eta kodearen aplikazioa ebaluatzen du eta dagozkion aldaketak proposatzen ditu.

Jokaera Kodearen Batzordeak funtzio hauek ditu kode honekin lotuta:

- Kontsultei lotutakoak: kode honetako printzipioak eta jokaera-jarraibideak interpretatzeari buruz egindako kontsultak ebaztea eta egoera jakin batzuetan jarduteko moduari buruzko aholkuak ematea.
- Erabakitzaileak: kodea urratu izanagatik egindako salaketak analizatzea eta ebaztea.
- Zaintzea: kodea betetzen dela zaintzea eta edukia eguneratzea proposatzea erakundearen, merkatuan, gizartean eta legerian sortzen diren aldaketetara egokitu dadin.
- Sustatzaileak: BPAren langileen eta bestelako interes-taldearen artean kode honetako balioak eta jarduketa-arauak hedatzea eta promozionatzea.

### 6.2. ETIKA-KANALA

Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legea indarrean jarri eta gero (horren bitartez Espainiara ekarri zen Europar Batasunaren zuzenbidearen urratzeak informatzen dituztenak babesteko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko EB 2019/1937 Zuzentaraua), BPAk informaziorako barne-sistema (SII) ezarri zuen. Askotariko neurrien artean, SIIk jasotzen du salaketa-kanal bat ezarri behar dela eta hori da lehenetsitako bidea 2/2023 Legearen 2. artikuluko ekintzak edo ez-egiteak informatzeko.

Kode honetako balioak eta printzipio etikoak sustatu eta babeste aldera, **BPAk bere webgunean eskuragarri dagoen salaketa-kanala gaitu du. Bertan bideratuko dira baita ere kode honen urraketak izan daitezkeen jokaera, ekintza edo ez-egiteak direla-eta egindako salaketak.**

Modu horretan, Jokaera Kodearen Batzordeari urraketen berri emateko modu hauek daude:

- Lehentasunez, esteka honetan eskuragarri dagoen etika-kanalean: <https://whistleblowersoftware.com/secure/bilbaoport>
- edo posta arruntez helbide honetan:

Bilboko Portuko  
Agintaritzaren  
jokaera-kodea 48.980  
– Santurtzi (Bizkaia)

Kode honen urraketen komunikazioak, edonola ere, fede onez egongo dira. Hala, ez dira babestuta egongo informazio faltsuak edo nahastuak ematea ezta modu bidegabean eskuratu direnak jakinaraztea ere. Informatzaileak eta gainerako eraginpekoek beren identitatea sekretuan gordetzeko eskubidea izango dute.

Kodea aplikatu edo interpretatzeari buruzko kontsultak edo zalantzak modu formal zein informalean egin ahalko zaizkio nagusiari edo Jokaera Kodearen Batzordeari, bai etika-kanalean, bai eta posta arruntaren bidez ere.

Metodo horien bitartez ezingo da zalantzarik kontsultatu, iradokizunik egin eta kexarik eta/edo iritzirik eman laneko egoera jakin batzuen inguruan, betiere, horiek ez badira kode honen ustezko edo benetako urraketak.

Bilboko Portuko Agintaritzak ez ditu fede onez jarduten dutenen ezta jakinarazitako jokaera-kodearen urraketatik eratorritako ikerketetan parte hartzen dutenen aurka egindako errepresaliak onartuko.

Komunikazio guztiak errespetuz, diligentziaz eta konfidentziasunez izapidetuko dira, datu pertsonalak babestearen arloko indarreko legerian ezarritakoa betez.

## 7. JOKAERA-KODEA ONESTEA, ALDATZEA, INDARRALDIA ETA ZABALTZEA

Jokaera-kode hau indarrean jarriko da Administrazio Kontseiluak onetsi eta gero eta une horretatik aurrera nahitaez bete beharko da.

Kodea aldizka berrikusiko da edukiak eta jokabidezko jarraibideak arau berrietara, erakundearen beharretara, legezko arauetara eta iraunkortasunaren inguruan dauden konpromisoetara egokitzeko.

Kode honen aldaketa edo berrikuspen guztiak Administrazio Kontseilura bidaliko dira onets daitezen, eta onartu eta gero kodeari atxikitakoei jakinaraziko zaizkie.

Agiri hau, bere eguneraketak eta aldaketak BPAren webgunean, gardentasun-atarian eta Atarian (langileen ataria) argitaratuko dira eta interesdun guztiak izango dituzte eskuragarri.

Aldi berean, langile berriei harrera egiteko protokoloan, ongietorria emateko dokumentazioarekin batera, kode honen kopia eguneratu bat sartuko da. Horrela, BPAra laneratzen diren guztiak berehala izango dute eskuragarri agiria.

### 7.1. JOKAERA-KODEA BETETZEA

BPAk espero du lantalde guztiak kode etikoa betetzean konpromiso-maila altua erakustea.

Kode etikoarekin lerrokatuta ez dauden jokaerek eta ekintzek agintaritzaren izen ona arriskuan jartzen dute. Hori dela-eta, erakundeko langile guztiak dagokion nagusiari edo kanal etikoaren bitartez informatzeko betebeharra dute, lanean ari diren bitartean urraketak edo praktika txarrak ikusten dituzten bakoitzean.

BPAko langileek jokaera-kode honetan xedatutakoa urratzen badute neurri zuzentzaileak, diziplinarioak eta/edo zehatzaileak ezarri ahalko dira, indarrean dagoen Estatuko Portuen eta Portu Agintaritzen Hitzarmen Kolektiboan ezarritako diziplina-falten eta zehapenen definizioarekin eta mailaketarekin bat etorritik, eta Langile publikoen oinarrizko estatutu-legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintza Errege Dekretuak onetsitakoa) zehaztutakoa betez.

“Goi-karguei” Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen II. “Gobernu ona” tituluko 25. artikulutik 32.era definitutako diziplina-araubidea aplikatuko zaie.

## ERANSKINA

### JOKAERA-KODEARI BURUZKO ARAUDIA

Arlo hau arautzen duten lege nagusiak jaso dira ondoren eta artikulua garrantzitsuenak azpimarratu dira.

#### **1. 19/2013 LEGEA, ABENDUAREN 9KOA, GARDENTASUNARI, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO BIDEARI ETA GOBERNU ONARI BURUZKOA**

Lege horren zioen azalpenaren arabera, sistemak bilatzen duena da zerbitzari publikoek jarduten dutenean efikazia-, soiltasun-, inpartzialtasun- eta, batez ere, erantzukizun-printzipioak bete ditzatela.

Helburu hori betetzeko legeak araubide-zehapena sortu du eta hiru eremutan egitaratu ditu. Eremita horietako bat interes-gatazkei lotutako arau-haustea dira.

Gobernu onari buruzko II. tituluak 26. artikuluan besteak beste gobernukideen, estatu-idazkarien eta Estatuko Administrazio Orokorren gainerako goi-karguen lana arautu behar duten etika-printzipioak eta jarduketakoak ezartzen ditu:

#### “26. artikulua. Gobernu onaren printzipioak.

*1. Titulu honen aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonak, beren funtzioak betetzean, Espainiako Konstituzioan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan xedatutakoa beteko dute, eta oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua bultzatuko dute.*

*2. Era berean, honako printzipio orokor hauetara egokituko dute beren jarduerak:*

*a) Printzipio orokorrak:*

*1. Gardentasunez jokatu dute gai publikoak kudeatzean, eraginkortasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioekin bat etorritik eta interes orokorrari erantzuteko helburuarekin.*

*2. Zerbitzu publikoaz arduratuz beteko dituzte beren eginkizunak, printzipio horien kontra doan edozein jokabide saihestuz.*

*3. Inpartzialtasun-printzipioa errespetatuko dute, eta, beraz, interes partikular ororen aurrean, irizpide independentea eta interes horrez bestekoa izango dute.*

*4. Beren eginkizunak betetzean, berdintasunezko eta inolako diskriminaziorik gabeko tratua ziurtatuko dute.*

*5. Behar besteko arretaz jokatu dute beren betebeharrak betetzean, eta kalitatea bultzatuko dute zerbitzu publikoak ematean.*

6. Jokaera duina izango dute, eta herritarrak arreta bereziz tratatuko dituzte.

7. Beren erabaki eta jardueren eta zuzentzen dituzten organismoen erabaki eta jardueren erantzukizuna hartuko dute beren gain, hartara eragotzi gabe legez eska dakizkiekeen beste batzuk.

b) Jarduketa-printzipioak:

1. Dedikazio osoz eta bateraezintasunak eta interes-gatazkak arautzeko araudia erabat errespetatuz beteko dute beren zeregina.

2. Beren eskumenak betetzean jakin dituzten egitate edo informazioei dagokienez, behar den zuhurtziaz jokatuko dute.

3. Arauz kanpoko jokabideren baten berri izanez gero, eskumena duten organoei jakinaraziko diete.

4. Boterea zertarako jaso duten, horretarako baino ez dituzte gauzatuko indarrean den araudiak ematen dizkieten botereak, eta interes publikoa edo administrazioen ondarea arriskuan jar dezakeen ekintzak saihestuko dituzte.

5. Ez dira beren eginkizunekin bateraezinak diren egoera, jarduera edo interesetan inplikatu, eta ez dute esku hartuko, baldin eta tartean beren objektibotasunari eragin diezaiokeen kausaren bat badago.

6. Ez dute berentzat oparirik onartuko, baldin eta opariok ohiko erabilera edo erabilera soziala edo kortesiazkoa gainditzen badute, eta ez dute onartuko abantaila-egoeraren batean eskainitako zerbitzurik edo mesederik, baldin eta horrek baldintzatu egin baditzake beren eginkizunak betetzeko orduan. Garrantzi instituzional handiagoa duten oparien kasuan, dagokion administrazio publikoaren ondareari gehituko zaizkio.

7. Gardentasunez beteko dituzte beren eginkizunak.

8. Baliabide publikoak behar bezala kudeatu, babestu eta gordeko dituzte, eta ezin izango dituzte erabili aplikatzekoa den araudiak onartzen dituenetatik kanpo dauden jardueretarako.

9. Ez dute administrazioan daukaten posizioa erabiliko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko.

3. Artikulu honetan ezarritako printzipioei jarraituz interpretatu eta aplikatuko da titulu honetan araututako zehapen-araubidea”.

Era berean, aplikatzekoa den zehapen-araubidea argitzen eta indartzen da, atxikita dauden erantzukizunarekin bat etorriz.

Hala, 27. artikulua xedatzen du bateraezintasun-arauak edo deklarazioak arautzen dituztenak urratzen direnean interes-gatazken araudian xedatutakoaren arabera ezarriko direla zehapenak:

“27. artikulua. Interes-gatazken arloko arau-haustea eta zehapenak.

*Bateraezintasunen arloko arauak edo titulu honen esparruan daudenek egin behar dituzten aitorenak arautzen dituztenak ez betetzea Estatuko Administrazio Orokorren interes-gatazkei buruzko araudian xedatutakoarekin bat etorriz zehatuko da; eta, gainontzeko administrazioen kasuan, aplikatzekoa zaien araudiarekin bat etorriz”.*

Bukatzeko, legearen 28. artikulutik 32.era ekonomia eta aurrekontuak kudeatzearen arloko arau-hauste oso larriak sailkatzen dira. Hala, diziplinazko arau-hausteen artean oso larriak, larriak eta arinak ezberdintzen dira eta xedatutako zehapenak, organo eskuduna, horiek ezartzeko prozedura eta xedapenari aplikatzekoa zaien araubidea ere ezartzen dira.

## **2. 3/2015 LEGEA, MARTXOAREN 30EKOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO GOI-KARGUAN ARITZEA ARAUTZEN DUENA**

Lege horrek goi-karguan aritzeari aplikatzekoa zaien esparru juridikoa argitzen, indartzen eta zabaltzen du. Xedea gardentasun eta legezkotasun handienarekin eta interes pribatuen eta funtzio publikoko interesen arteko gatazkarik gabe aritzea da.

Lege horren 3. artikuluan Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguek bete behar dituzten printzipioak xedatzen dira, 19/2013 Legearen 26. artikuluan jasotakoez gain:

### “3. artikulua. Goi-karguan aritzea.

*1. Goi-karguan aritzean, abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasotako gobernu onari buruzko xedapenez gain, bereziki honako printzipio hauek bete beharko dira:*

- a) Interes orokorra: objektibotasunez zerbitzatuko dituzte interes orokorrak.*
- b) Osotasuna: arreta egokiarekin jardungo dute, eta interes-gatazkek izateko arriskua saihestuta.*
- c) Objektibotasuna: erabakiak hartzerakoan, alde batera utziko dituzte jarrera pertsonalak, familiakoak, korporatiboak edota bezeroekin lotutakoak, bai eta printzipio honen aurka egin dezaketenen bestelako jarrerak ere.*
- d) Gardentasuna eta erantzukizuna: erabakiak gardentasunez hartuko dituzte eta erabakiok sortutako ondorioen erantzule izango dira.*
- e) Austeritatea: baliabide publikoak efizientziaz kudeatuko dituzte, gastua arrazionalizatuta.*

*2. Aurreko zenbakian aipatutako printzipioak goi-kargudunen eginkizunei eta jardunari aplikatzeko araudiaren oinarri izango dira. Halaber, interpretazio-irizpide gisa erabiliko dira zehapen-xedapenak aplikatzeko garaian.*

*Haien garapena eta balizko ez-betetzeekin lotutako erantzukizunak erregulatzeko, indarrean dauden gobernu onari buruzko arauak hartuko dira kontuan, dagokien aplikazio-eremuan”.*

Era berean, interes-gatazken eta bateraezintasunen araubideari dagokionez, 11. eta 12. artikuluetan interes-gatazken definizioa eta horrelakoak gertatzen direnerako abstentzio-araubidea ezartzen dira. Horretarako, alerta-sistema bat ezartzen da interes-gatazka posibleak garaiz detektatzeko:

“11. artikulua. Interes-gatazken definizioa.

1. *Goi-kargudunek objetibotasunez zerbitzatuko dituzte interes orokorrak, eta saihestu egin beharko dute haien interes pertsonalek beren eginkizun eta erantzukizunak betetzean eragin desegokia izatea.*

2. *Goi-karguduna interes-gatazkan murgilduta dagoela ulertuko da, hartuko duen erabakiak eragina izan dezakeenean, 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, bere interes pertsonaletan, izan ekonomiko edo profesional, interes horietan onurak edo kalteak sortuko dituelako.*

*Honako hauek dira interes pertsonalak:*

a) *Norbere interesak.*

b) *Familiaren interesak; horien barnean egongo dira ezkontidearenak edo antzeko afektibitate-harremana duen bizikidearen interesak eta laugarren mailako odol-ahaidetasuna eta bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna duten senideen interesak.*

c) *Goi-kargudunarekin ebatzi gabeko auziren bat duten pertsonen interesak.*

d) *Goi-kargudunarekin ageriko laguntasun edo etsaitasuna duten pertsonen interesak.*

e) *Goi-kargudunarekin, goi-kargudun izendatua izan aurreko bi urteetan, edozein eratako lan- edo lanbide-harremana izan duten pertsona juridiko edo erakunde pribatuen interesak.*

f) *b) letran ezarritako senideekin edozein eratako lan- edo lanbide-harremana duten pertsona juridiko edo erakunde pribatuen interesak, harremanak zuzendaritza-, aholkularitza- edo administrazio-eginkizunak betetzea badakar.*

12. artikulua: Interes-gatazkak garaiz detektatzeko alerta-sistema.

1. *Goi-kargudunek interes-gatazkarik gabe bete behar dituzte beren eginkizun eta eskumenak; interes-gatazkarik dagoela iritziz gero, beraien eraginpeko erabakia hartzean abstenitu egin beharko dute.*

2. *Agintari-izaera duten goi-kargudunek ez dute dagokion administrazio-prozeduran parte hartuko, Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako kausak biltzen direnean, 11. artikuluan zehaztutako interes pertsonaletan eragina dutelako. Halaber, errekusatu egin ahal izango dira, aipatutako legean zehaztutako moduan.*

*Interes Gatazken Bulegoak, goi-kargudunak jardueren aitorpenean emandako informazioan oinarrituz eta, hala balegokio, eskatzen zaion informazioan ere bai, kargua bete bitartean, oro har, zein gai edo arlotan abstenitu behar duen jakinaraziko dio goi-kargudunari.*

*3. Agintari-izaerarik ez duten goi-kargudunen zerbitzuak jasotzen dituzten organo, erakunde eta entitateek prozedura egokiak ezarri behar dituzte sor daitezkeen interes-gatazkak detektatzeko, eta, interes-gatazkak izanez gero, absteni daitezen edo erabakia hartzean errekusatuak izan ahal daitezen. Prozedura horiek eta prozedurak aplikatzearen emaitza urtero komunikatu beharko zaizkio Interes Gatazken Bulegoari.*

*4. Goi-kargudunaren abstentzioa idatziz gauzatuko da, eta goiko nagusiari edo izendatu zuen organoari jakinaraziko zaio. Abstentzio hori hilabeteko epean komunikatuko dio goi-kargudunak Goi Kargudunen Jardueren Erregistroari, jasota gera dadin. Abstentzioa kide anitzeko organo baten bileran gertatzen bada, abstentzioa aktan jasotzea eta goiko nagusiari edo izendatu zuen organoari komunikatzea parekoak izango dira. Kide anitzeko organoko idazkariak komunikatuko dio Goi Kargudunen Jardueren Erregistroari.*

*5. Goi-kargudunak noiznahi egin ahalko dizkio Interes Gatazken Bulegoari gai jakinetan abstenitzeko egokitasunari buruz beharrezkotzat jotzen dituen kontsulta guztiak”.*

Halaber, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legearen Atariko II. eta III. tituluak garatzen dituen erregelamenduaren 5. artikulua (erregelamendu hori irailaren 28ko 1208/2018 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen) goi-karguek abstentzioa egiteko modua adierazten du:

*“5. artikulua. Goi-karguak abstenitzeko deklarazioa.*

*Martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 12. artikuluko 2. eta 3. apartatuek aipatzen duten goi-karguaren abstentzioa onetsitako erduekin bat etorritik egingo da. Abstentzioa organo kide baten bileran gertatzen baldin bada, aktan jasoko da eta organo kide baten idazkariak jakinaraziko du hilabeteko epean jardueren erregistroan, horretarako onetsitako erduekin bat etorritik”.*

Urtarrilaren 8ko TFP/2/2020 Aginduan zehazten da zein egunetatik aurrera izango den eraginkorra martxoaren 30eko 3/2015 Legean eta bere araubidean xedatutako prozeduretan Interes Gatazken Bulegoarekin elektronikoki komunikatzeko obligazioa. Agindu horren bitartez onesten dira, baita ere, deklarazioen, komunikazioen eta agiri elektronikoen ereduak. Hala, “8. eredu” administrazio-prozeduretan abstenitzeko da eta “9. eredu” organo kide baten abstenitzeko.

Beste alde batetik, martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 13. artikulutik 18.era ezartzen da karguari dagokion dedikazio eskusiboaren obligazioa. Horretaz gain, ondare-mugak ezartzen dira sozietate-partaidetzetan eta kargua utzi ondoren jarduera pribatuak egiteko ere bai; gainera, jardueren eta ondasun eta eskubideen deklarazioak aurkezteko obligazioa ezartzen da eta finantza-balioen eta -aktiboen kontrol- eta kudeaketa-araubidea xedatzen da. Bukatzeko, azpimarratu beharra dago lege beraren IV.titulua (25. artikulutik 28.era) zehapen-araubidea jasotzen duela eta arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak sailkatzen ditu, aplikatzekoak diren zehapenak zehazten ditu, organo eskudunak azaltzen ditu eta arau-hausteen eta zehapenen preskribapena ere bai.

### **3. 40/2015 LEGEA, URRIAREN 1EKOA, SEKTORE PUBLIKOAREN ARAUBIDE JURIDIKOARENA**

Lege horren 23. eta 24. artikuluetan ezartzen da agintarien eta administrazio publikoetako langileen abstentzioei eta errekusatzeei aplikatzen zaien araubidea, eta horien arrazoiak, zehazteko administrazio-prozedura eta ondorioak ezartzen dira.

#### “23. artikulua. Abstenitzea.”

*1. Hurrengo zenbakian aipaturiko egoeraren batean dauden administrazioetako agintari edo langileek ez dute prozeduran parte hartuko, eta horren berri emango diote beren nagusi hurrenari, bidezkoa dena ebatz dezan.*

*2. Abstenitzeko arrazoiak dira:*

*a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.*

*b) Ezkontza-lotura edo ezkontzaren antzeko lotura eta laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritza.*

*c) Aurreko letran aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.*

*d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.*

*e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izana.*

*3. Goragoko organoek espedientean parte ez hartzeko agin diezaiekete aurreko puntuan azaldutako inguruabarretako batean daudenei.*

4. *Administrazio publikoetako agintari edo langileek abstenitzeko arrazoiren bat izanik jardun badute, kasu guztietan, parte hartu duten egintzak ez dira nahitaez baliogabeak izango.*

5. *Inguruabar horietan parte hartu behar ez eta parte hartzen duenak erantzukizuna izango du.*

24. artikulua: Errekusatzea.

1. *Aurreko artikuluan adierazitako kasuetan, prozeduraren edozein unetan errekusatu dezakete interesdunek.*

2. *Idatzirik aurkeztuko da errekusatzea, arrazoiak adierazita.*

3. *Errekusatuak, biharamunean, alegatu den arrazoia beragan betetzen den ala ez esango dio bere nagusi hurrenari. Lehenengo kasuan, nagusiaren ustez errekusatzeko arrazoirik badago, ordezkoa jartzea erabaki dezake berehala.*

4. *Errekusatuak errekusatze-arrazoia ukatzen badu, nagusiak hiru eguneko epean ebatziko du, bidezko deritzen txostenen eta egiaztapenen ondoren.*

5. *Ezin da errekurtsorik aurkeztu errekusatzearen gaineko ebazpenen aurka; hala ere, errekusatzea alega daiteke prozedura amaitzen duen egintzaren aurka errekurtsua egiterakoan.*

**4. LANGILE PUBLIKOEN OINARRIZKO ESTATUTUAREN TESTU BATEGINA, URRIAREN 30EKO 5/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUAREN BIDEZ ONETSI ZENA**

VI. kapituluak administrazio publikoetako langileek bete beharrekoak eta jokaera-kodea ezartzen ditu.

52. artikulua ezartzen du langile publikoek arretaz bete beharko dituztela esleituta dituzten zereginak, eta interes orokorrak zaindu beharko dituztela konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetz; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua. 53. eta 54. artikuluetan araututako jokaera- eta etika-printzipioek eratutako langile publikoen Jokaera Kodearen inspirazioa dira horiek.

“52. artikulua. Langile publikoen betebeharrak. Jokaera-kodea.

*Langile publikoek arretaz bete beharko dituzte esleituta dituzten zereginak, eta interes orokorrak zaindu beharko dituzte konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetz; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna,*

*konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua. Hurrengo artikuluetan araututako jokaera- eta etika-printzipioek eraturako langile publikoen Jokaera Kodearen inspirazioa dira horiek.*

53. artikulua: Printzipio etikoak.

- 1. Enplegatu publikoek konstituzioa eta ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.*
- 2. Enplegatu publikoen jardunak herritarren interes orokorrak betetzea izango du xede eta inpartzialtasuna eta guztiontzako interesa lortzera doazen jarraibide objektiboak izango ditu oinarri, printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jokaera guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiartekoak, korporaziokoak nahiz bezeroei dagozkienak izan.*
- 3. Beren jarduna leialtasunaren eta fede onaren printzipioen arabera izango da, bai lanean diharduteneko administrazioarekin, baita nagusi, lankide, menpeko eta herritarrekin ere.*
- 4. Enplegatu publikoen jokabideak oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua izango du oinarri, eta saihestu egingo ditu era guztietako bereizkeriak, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla eta, sor litezkeenak.*
- 5. Interes pertsonala duten gaietan abstenitu egingo dira eta, lanpostu publikoaren interesekiko gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai.*
- 6. Enplegatu publikoek ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko, eta ez dute pertsona nahiz erakundeekin parte hartuko finantza-eragiketetan, ondarezko betebeharrak edo negozio juridikoetan horrek lanpostu publikoaren betebeharrakiko interes-gatazka sortzeko arriskua ekar badezake.*
- 7. Ez dute fabore-traturik onartuko, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere, pertsona fisikoen edo erakunde pribatuen aldetik.*
- 8. Eraginkortasun-, ekonomia- eta eragimen-printzipioen arabera jardungo dute; eta interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezzen zainduko dute.*
- 9. Enplegatu publikoek ezin dute, tartean bidezko arrazoirik izan gabe, administrazio-prozedurak edo -tramiteak azkartzeko edo ebazteko eraginik izan; are gutxiago, horrek pribilegioa badakar kargu publikoetako titularren alde edo beren familiartekoen edo inguru sozialaren alde, edo kaltea badakar hirugarren batzuen interesen aurka.*

10. Enplegatu publikoek arretaz beteko dituzte atazak, dagozkienak nahiz agindutakoak, eta, hala dagokienean, epe barruan ebatziko dituzte eskumenean dituzten prozedurak eta espedienteak.

11. Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazio-printzipioari jarraituz beteko dituzte dagozkien eskurantzak, eta saihestu egingo dituzte, printzipio horren aurkako jokabideez gain, zerbitzu publikoen jardunean zaindu beharreko neutraltasuna kolokan jar dezaketen jokaera guztiak.

12. Sekretupean gordeko dituzte sailkatuta dauden gaiak edo legez zabalkundea debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhurtasunez jokatuko dute beren kargua dela-eta dakizkiten gaiei buruz eta eskuratu duten informazio hori ezin izango dute erabili ez beren mesederako, ez hirugarren batzuenarako, ezta interes publikoaren kalterako ere.

54. artikulua: Jokaera-printzipioak.

1. Arretaz eta begirunez tratatuko dituzte herritarrak, beren nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak ere.

2. Enplegatu publikoek, lanpostuari dagozkion atazak betetzerakoan, zuhurtasunez eta arretatsu jokatuko dute, eta ezarritako lanaldia eta ordutegia beteko dituzte.

3. Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionaleri men egin behar diete, argi eta garbi ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira behintzat; horrelakoetan, berehala emango diete horren berri dagozion ikuskaritza-organoari.

4. Ezagutzeko eskubidea duten gaiei eta arloei buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta laguntza emango diete beren eskubideak baliatu eta betebeharrak bete ditzaten.

5. Enplegatu publikoek baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko norberaren edo hurbilekoen mesederako. Halaber, horiek zaintzeko eginbeharra ere izango dute.

6. Ez da abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik onartuko, gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte, betiere, Zigor Kodean ezarritakoari kalte egin gabe.

7. Dokumentuen ziurtasuna eta iraupena bermatuko dituzte agiri horiek ondorengo arduradunei eman eta eskualdatu ahal izateko.

8. Eguneratuta izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.

9. Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko arauak beteko dituzte.

10. Beren nagusien edo organo eskudunen jakinaren gainean jarriko dituzte, zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko beren ustez egoki diren proposamenak. Horretarako, enplegatu publikoek eta herritarrek egindako

*proposamenak, zeinak zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko baitira, jasoko dituen instantzia eskumendun egokia sortzea aurreikus daiteke.*

*11. Herritarrari berak eskatutako hizkuntzan erantzungo zaiola bermatu behar dute, hizkuntza hori lurralde horretan ofiziala bada”.*

Aurreko guztiaz gain, azpimarratu beharra dago VII. tituluak (93. artikulutik 98.era) langile publikoei aplikatzekoa zaien diziplina-araubidea jasotzen duela. Bertan jasota daude honako hauek: langile publikoak diziplina-erantzukizuneko araubideari lotuta egongo dira; administrazio publikoek bete behar dituzten printzipioak zehapen-ahala egikartzeko; diziplinazko arau-hausteen sailkapena (oso larriak, larriak eta arinak); aplikatzekoak diren zehapenak; arau-hausteen eta zehapenen preskribapen-araubidea; diziplina-prozedura eta behin-behineko neurriak ezartzeko aukera.

## **5. ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEEN BATERAEZINTASUNEN ABENDUAREN 26KO 53/1984 LEGEA**

Lege horrek arautzen du administrazio publikoetako langileen bateraezintasun-araubidea. Horren arabera, oinarrizko printzipioa da langile horiek lanpostu bakarra izan dezaketela, zerbitzu publiko berak eskatzen dituen salbuespenak baino ez direla egongo eta jarduera pribatuak errespetatuko direla beren zereginak zehatz betetzea galarazten ez badira edo beren inpartzialtasuna edo independentzia zalantzan jartzen ez badute.

1. artikulua printzipio orokor hauek ezartzen ditu:

### “1. artikulua.

*1. Lege honen aplikazio-eremuko langileek ezingo dituzte beren jarduerak bateragarri egin bere horretan edo ordezkapen bidez sektore publikoan bigarren lanpostu, kargu edo jarduera bat betetzearekin, legean xedatutako kasuetan ez ezik. (...)*

*2. Gainera, lege honetan xedatutako kasuetan izan ezik, ezingo dute administrazio publikoen eta horien menpeko erakunde, organismo eta enpresen aurrekontuen kargura edo konstituzio-organoetako aurrekontuen kargura edo muga-zergak aplikatzearen ondoriozko ordainsari bat baino gehiago jaso. Ez dute izango aukerarik ezta ere bateraezinak diren lanpostuei dagozkienak jasotzeko. (...)*

*3. Edonola ere, lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek lanpostu bat betetzea ez da bateragarria izango kargu, lanbide edo jarduera publikoa edo pribatua betetzearekin, baldin eta bere eginbeharrak zehatz eta mehatz betetzea eragotzi edo kaltetu badezake edo bere inpartzialtasuna edo independentzia arriskuan jar baditzake”.*

II. kapituluak (3. artikulutik 10.era) jarduera publikoen bateraezintasunei aplikatzekoa zaien araubidea ezartzen du eta III. kapituluak (11. artikulutik 15.era) jarduera pribatuen bateraezintasunei aplikatzekoa zaiena.

Bukatzeko, 19. artikulua bateraezintasunen araubidetik salbuetsita dauden jardueren zerrenda ezartzen du eta 20. artikulua zehazten du aurreko artikuluetan xedatutakoa urratzen bada aplikatzekoa den diziiplina-araubideko zehapenak ezarriko direla.